

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1991ko Urtarrilak 25, 93. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**ALBERTO  
ERRAZTI,**  
natura  
eta kirola



# Natura ezagutzen

Udalako Ingurugiro Eskola

*Jose Aranzabal*

- Bideokamarak, TB, HI-FI, bideoa
- Elektrogailuak
- Sukaldeko altzariak

Iturriotz 15, Tfnoa: 79 15 16  
Bañez doktorea 8, Tfnoa: 79 18 92

 **OKIENDO  
KIROLAK**

J. URIARTE

T A A

M PA A

Y PEL O

Merkatuko marka onenek bermatu  
eta abalatzten gaituzte.  
Zatoz ikustera!



WORLDWIDE COURIER

HIRI ETA ESTATU

BARNEKO ETA NAZIOARTEKO

BIDALKETAK

**ALBACETE**, Batalla del Salado, 37. T. 967-22 75 53 - **Almansa**, Aniceto Coloma, 40. T. 967-34 58 58 - **ALICANTE**, C/A Fuentes de Alipark, loc. 3. T. 96-510 05 33 - **Alcoy**, Entenza, 46. T. 96-552 55 66 - **Benidorm**, Lepanto, loc. 30. T. 96-586 53 11 - **Elche**, Avd. Libertad, 123. T. 96-544 21 01 - **Elda-Petrel**, José Martínez González, 89. T. 5385 9 98 - **Torreveleja**, Avd. Diego Ramirez, 223. Ecuenter, T. 96-571 73 91 - **ALMERIA**, Santa Isabel, 62. T. 951-25 09 88 - **El Ejido**, Alvaro Soto Mayor Gal, Cial, T. 951-48 36 13 - **Huerca Overa**, Crta. Nacional 340, Edif. Davinia, 2. T. 951-47 13 13 - **ANDORRA**, Carlemany, 105. T. 973-8-26300 - **AVILA**, Avd. de la Juventud, 6. T. 918-2112 67 - **BADAJUZ**, Av. Juan Sebastián Elcano, 5 A. T. 924-25 50 51 - **Don Benito**, San Francisco, 30. T. 924-84 33 07 - **Meñida**, José María Pemán, 3. T. 924-31 94 49 - **PALMA DE MALLORCA**, Andrea Doña, 8. T. 971-23 21 41 - **Inca**, Edison, 1. T. 971-50 37 11 - **Manacor**, Av. Salvador Juan, 86. T. 971-55 57 74 - **Ibiza**, España, 30. T. 971-30 16 00 - **Fomentera**, Crta. Pujol, s/n. T. 971-32 24 18 - **Ciudadela**, Camí d'es Degollador, 87. T. 971-38 05 12 - **Mahón**, Av. Anselmo Clavé, 56. T. 971-35 05 12 - **BARCELONA**, Casanova, 79. T. 93-323 32 05 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Palacio de Congresos - **Boulevard Rosa**, Pº. de Gracia, 55-57 - **Centro "La Caixa"**, Diagonal, 635 - **Cristal**, Gran Vía, 1176 bis - **Jonqueras**, Jonqueras, 2 - **Mercurio**, Vía Augusta, 59 - **Nerviñ**, Vía Layetana, 20 - **Windsor**, Vía Augusta, 2 - **Financia**, Pau Claris, 162-164 - **Pallars**, Pallars, 85-91 - **Colón**, Drassanes, 6-8 - **Mercabarna**, Esc. C Edificio Oficinas - **Hipercor**, Meridiana, 354 - **Padilla**, Padilla, 205 - **Carlos III**, Sabino de Arana, 32 bis. bjos. - **Badalona**, Marqués de Mont Roig, 126. T. 93-388 51 51 - **Barberá**, Pso. Moragas, 256. T. 93-718 36 52 - **Berga**, De la Sardana, 27. T. 93-874 12 98 - **Cornellá**, Crta. Sant Boi, 9. T. 93-377 22 00 - **Granollers**, José Umberto, 58. T. 93-870 06 12 - **Hospitalet**, Plza. Maestro Clavé, 6-8. T. 93-337 01 00 - **Igualada**, San Ferrán, 22. T. 93-804 24 11 - **Manresa**, Crta. Pont Vilomara, 17. T. 93-874 12 12 - **Mataró**, Rda. Antoni Comas, 24. T. 93-798 34 57 - **Mollet**, Cayetano Ventallo, 87. T. 93-570 47 52 - **Pineda**, Santiago Rusiñol, 11. T. 93-762 69 69 - **Polinyá**, Mayor, 5-7. T. 93-726 72 20 - **Premia**, De la Plaza, 36. T. 93-752 10 55 - **Rubí**, Avd. Catalunya, 4. Edif. Iris, T. 93-697 03 66 - **Sabadell**, Rosales, 18 - T. 93-726 43 77 - **S. Andrés B**, Plza. Iglesia, 1. T. 93-653 24 51 - **Tarrasa**, Balmes, 19. T. 93-789 22 22 - **Vic**, Av. Martí Genis Aguilar, 25. T. 93-885 62 50 - **Villafraanca**, Arbós, 14. T. 93-890 35 40 - **Villanueva**, Gornal, 13. T. 93-815 19 60 - **BILBAO**, General Eguía, 7 - T. 94-443 76 08 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona Servicios - **Cámara de Comercio**, Alameda Recalde, 50 - **Bermeo**, Reina Zubi, 17. T. 94-688 19 04 - **Durango**, Maspe, 10. T. 94-620 01 62 - **Guemica**, Bº Txaporta, 3. T. 94-685 55 00 - **BURGOS**, Comuneros Castilla, 19. T. 947-23 66 11 - **Miranda**, Reyes Católicos, 14. T. 947-31 06 40 - **CACERES**, Sta. Luisa Marillac, 16. T. 927-21 06 34 - **Plasencia**, Rda. Salvador, 71. T. 927-41 26 09 - **CADIZ**, Guadix, 3. T. 956-25 75 61 - **Algeciras**, Urb. Dña. Casilda, bloq. 10. T. 956-65 35 61 - **Ceuta**, Gral. Aranda, 10. T. 956-52 18 01 - **Jerez F.**, Pso. Delicias, 5. T. 956-34 01 11 - **LAS PALMAS**, San Diego de Alcalá, 12. T. 928-36 55 77 - **Fuenteventura**, Avd. 23 de Mayo, 3. T. 928-85 07 17 - **Lanzarote**, Avd. Mancomunidad, 4. T. 928-81 67 14 - **Playa del Inglés**, Centro Comercial Nilo, loc. 1030 - T. 928-76 66 53 - **TENERIFE**, Ramón y Cajal, 50. T. 922-28 34 54 - **CASTELLON**, Maestro Falla, 7. T. 964-22 87 99 - **Benicarló**, Del Pilar, 10. T. 964-47 47 79 - **Vall de Uxó**, Plaza Villavieja, 6. T. 964-66 71 11 - **CIUDAD REAL**, Parque Residencial Rda., bl. 11. T. 926-25 24 66 - **Puertollano**, Pso. San Gregorio, 1 Bl. B. T. 926-43 00 50 - **Valdepeñas**, Amparo, 18. T. 926-32 17 32 - **CORDOBA**, Avd. Libia, s/n. T. 957-26 86 00 - **Lucena**, Hoya del Molino, 6. T. 957-59 13 71 - **Pozoblanco**, Dr. Antonio Cabrera, 8. T. 957-10 26 20 - **CORUÑA**, Primo de Rivera, 11. T. 981-24 45 33 - **Ferrol**, Perbes, 16. T. 981-32 02 00 - **Santiago C.**, Pasadizo Bryan, 11. T. 981-56 22 55 - **Riveira**, Ramón y Cajal, s/n. T. 981-87 22 12 - **CUENCA**, Colón, 73. T. 966-22 92 21 - **GERONA**, Andrés Tuyet Santamaría, 33. T. 972-21 55 66 - **Figueras**, Verge Maria, 6. T. 972-50 27 66 - **Junquera**, Crta. Nacional II, Km. 11. T. 972-54 05 05 - **Olot**, Père Roca, 8. T. 972-26 58 58 - **Palamós**, Iglesia de Sant Joan, 6. Tel 972-31 86 00 - **Puigcerdá**, Pla del Fort, 4. T. 972- 88 14 51 - **GRANADA**, Trucha, Edif. Victoria, 3. T. 958-29 34 38 - **GUADALAJARA**, Angel Ma. de Lera, 4. T. 911-21 58 16 - **HUELVA**, Fernando el Católico, 4. T. 955-25 70 12 - **Ayamonte**, Joaquín González Saez, s/n. T. 955-32 19 57 - **HUESCA**, Concilio de Ibon, 14. T. 976-49 96 61 - **JAEN**, Avd. Madrid, 25. T. 953-26 53 04 - **LEON**, Cipriano Huerga, 14. T. 987-21 15 11 - **Ponferrada**, Tras de la Bóveda, 12. T. 987-41 82 51 - **LERIDA**, Avd. de las Garrigas, 13. - T. 973-20 57 58 - **Tárraga**, Dr. Riu, 7. T. 973-31 30 68 - **Viella**, Av. Pas d'arro, 5. T. 973-20 57 58 - **LOGROÑO**, Jorge Vigón, 28. T. 941-25 79 66 - **Calahorra**, Bebricio, 41. T. 941-13 30 66 - **LUGO**, Amor Melián, 14. T. 982-24 13 61 - **Foz**, Méndez Val, 8. T. 982-13 21 02 - **MADRID**, Ros de Olano, 7. T. 91-413 62 14 - **Receptorías Urbanas: Gran Vía**, Gran Vía, 67 - **Indubuilding**, Vía de los Poblados, 9 y 11 - Nº. 3. Sor Angela de la Cruz, 24 - Nº. 4. Cedaceros, 9 - **La Caixa**, Pº. Castellana, 51 - **División Internacional**: Costada, 15. T. 91-246 26 00 - **Alcobendas**, Pintor Velázquez, 10. T. 91-653 50 66 - **Arganda**, Crta. Valencia, Km. 25.8. Nave 38. T. 91-871 44 91 - **Majadahonda**, F. Garcia Lorca, s/n. Urb. Delta, T. 91-638 78 97 - **Getafe**, Avd. Ciudades, 92. T. 91-681 14 14 - **Móstoles**, Castellón, 15. T. 91-617 64 63 - **San Fernando**, Sierra Albarracín, loc. 33. T. 91-656 21 13 - **MALAGA**, Urb. Santa Cristina, loc. 6. T. 952-34 07 00 - **Fuengirola**, Miguel Unamuno, s/n. L.3C. T. 952-46 30 00 - **Marbella**, Terrazas, P-3, loc. C. T. 952-82 61 61 - **Melilla**, Carlos de Arellano, 22. T. 952-68 38 47 - **Nerja**, Chaparil, s/n. T. 952-52 14 90 - **Ronda**, Villanueva, 21. T. 952-87 69 49 - **Torredelmar**, Urb. Pueblo Rocio, bloque 1. T. 952-54 05 84 - **MURCIA**, Pza. de las Balsas, 3. T. 968-21 00 31 - **Cartagena**, Licenciado Cascales, 10. T. 968-52 72 88 - **Lorca**, Avd. Juan Carlos I, Edif. Goya. T. 968-46 43 00 - **ORENSE**, Greco, 25. T. 988-24 34 00 - **OVIEDO**, López del Vallado, 7. T. 985-20 11 11 - **Avilés**, Llano Ponte, 56. T. 985-55 10 11 - **Gijón**, Peñora, 9. T. 985-35 11 11 - **PALENCIA**, Los Robles, 24. T. 988-74 79 77 - **PAMPLONA**, Pedro I, 19. T. 948-27 70 11 - **Tudela**, Díaz Bravo, 1. T. 948-82 19 17 - **PONTEVEDRA**, Trav. V. C. Mercadillo, G. Venecia. T. 986-84 43 12 - **Lalín**, Corredoira, 40. T. 986-78 17 44 - **Vigo**, Couto Piñeiro, 6. T. 986-41 51 00 - **Villagarcía**, San Roque, 15. T. 986-50 43 33 - **SALAMANCA**, Bolívar, 10. T. 923-23 14 62 - **Fuentes Ohoro**, Doctor Fleming, 28 A. T. 923-47 32 82 - **SAN SEBASTIAN**, Pso. Vizcaya, 17. T. 943-46 40 55 - **Azpeitia**, Polig. Ind., 35, Barrio Landeta. T. 943-81 54 08 - **Eibar**, Pso. Urquiza, 24. T. 943-12 09 50 - **Irún**, José Eguino, 14. T. 943-61 25 41 - **Mondragón**, Avd. Vizcaya, 16. T. 943-79 96 97 - **Tolosa**, Av. Alava, s/n. Bl. 2. T. 943-65 41 24 - **SANTANDER**, San Celedonio, 11. T. 942-22 52 72 - **Torrelavega**, José Luis Hidalgo, 5. T. 942-89 74 16 - **SEGOVIA**, Av. Fdez. Ladreda, 28. G. C. Loc. 10. T. 911-44 00 55 - **SEVILLA**, Alejo Fernández, s/n. T. 954-42 05 11 - **Receptorías Urbanas: Sevilla-2**, Francisco Javier, 9 - **Torre de los Remedios**, Rep. Argentina, 24 - **Estepa**, Sevilla, 48. T. 954-42 00 08 - **SORIA**, Postas, 27. T. 975-22 60 96 - **TARRAGONA**, Mar, 19. T. 977-22 25 22 - **Amputa**, Mayor, 28. T. 977-70 52 04 - **Reus**, Roseta de Sales, 40. T. 977-34 54 54 - **Tortosa**, Nova de Vall, 1. T. 977-44 67 13 - **Valls**, Sta. J. Vedruna, 7. T. 977-60 66 11 - **TERUEL**, Urb. La Guía, D 8. T. 974-60 85 18 - **TOLEDO**, Avd. Sta. Bárbara, 10. T. 925-21 44 04 - **Talavera**, Aragón, 6. T. 925-80 02 87 - **VALENCIA**, Dr. Beltrán Bigorra, 7. T. 96-341 44 22 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona de Servicios-Zona Este y Oeste - **Alicia**, Plza. Sagrada Familia, 8. T. 96-241 99 04 - **Gandia**, Mayor, 44. T. 96-287 31 70 - **Játiva**, Escultor Esteve, 5. T. 96-227 23 34 - **Onteniente**, Dos de Mayo, 95. T. 96-238 80 62 - **Requena**, Plza. Janini, s/n. T. 96-230 24 69 - **Sagunto**, Los Huertos, 89. T. 96-266 59 89 - **VALLADOLID**, Málaga, 10. T. 983-39 23 44 - **VITORIA**, La Florida, 58. T. 945-28 57 00 - **Llodio**, Solocelai, s/n. T. 94-672 56 66 - **ZAMORA**, Arapiles, 26. T. 988-52 10 99 - **ZARAGOZA**, Miguel Servet, 128. T. 976-49 95 11.

- HIRI BARNEKO ZERBITZUA
- \* Furgoneta zerbitzua (400 Kg.)
- \* Furgoneta zerbitzua (1.200 Kg.)

• ESTATU BARNEKO ZERBITZUA

\* Gau eta egun

• NAZIOARTEKO ZERBITZUA

\* Courier zerbitzua

\* Aire-karga zerbitzua

\* Itzulpen zerbitzua

ARRASATE

Bizkaia Hirib. 16, Tfnoa; 79 96 97

EIBAR

Urkizu Pas. 24 B, Tfnoa: 12 09 50

AZPEITIA

Landeta Auz. z/g Tfnoa: 81 54 08

DURANGO

Maspe 10-B, Tfnoa: 94-620 01 62

INFORMAZIOA  
900 300 400



-ko kide



-ko kide

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65

## Laguntzailea:

Arrasateko Udala

## Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

## Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

## Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri  
Tfnoa: 77 08 15

## Maketazioa:

Goio Arana

## Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

## Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta.

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

## Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

## Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

# Migrazioen haritik

**Z**er pentsatzerik eman zidan lehengoan, euskaraz kaleratzen den egunkarian "Bizkaian dauden 5.000ren bat inmigranteak..." baieztapena irakurtzeak. Tituluak arreta irabazi zidan, artikularen mamira jo nuen eta, noski, egilea Bizkaian bizi diren marrokiar, portugaldar, nigeriar, eta abarri zegokiola ohartu nintzen. Hau da, estatu mugez barnekaldetik iritsitakoak bakarrik hartzen zituen artikuluegileak inmigrantetzat, Andalucia, Extremadura edota Murciatik etorritakoak izango ez balira bezala.

Herrien exodoa betiko kontua izan da. Euskaldunok ere joera hori garbi azaldu dugu mendeetan zehar batzuetan gizabanako-emigrazioa emigrazio kolektibo behartua bihurtu delarik. Adibidez, hemengo azken gerra ondorengo exilioa. Eta ordukoa ere da gure herrietara hainbat eta hainbat etorkinen agerpena: Euskal Herriko giza-konposaketa hain sakonki eragingo zuen inmigrazio kontrolaezina. Ez da ahaztu behar, askotan, migrazioak arma politiko bezala erabili direla; gori-gorian dugun kasua, esaterako, Sobiet Bata-suneko botere zentralak errepubliketan eragindako etnia-nahasketa interesatua.

Gaur eguneko baldintzetan, munduko mosaikoak berdina izaten noiz arte iraungo duen asmatzea ez da gauza erreza. Apokaliptiko izan gura gabe, nahiko beltz dakusat etorkizuna, gure planetan izango diren aldaketei dagokie-nez. Hori, noski, garatuen eta aberatse-nen ditugun herriek ez badute konponbi-

derako bitarteko aproposik ipintzen. Demografiaren hedapen ikusgarriak, hain zuzen ere, hirugarren munduko herrialdeetan erakusten ditu indizerik garaienak: Saudi Arabian, 7,2 seme-alaba emakumeko; Iraken, 7,1; Pakistanen 6,5; European, ordea, 1,8.

Badiote -eta egia delakoan nago-Gorbatxovek Kohl alemaniarrari egindako eskabideak mehatxu gogor batean oinarritu zituela. Gutxi gorabehera: "Ez badidazue ekonomikoki egokiro laguntzen, hiritar guztiei Sobiet Batasunetik turista gisa irteteko baimena emango zaie. Atera itzazu kontuak, horietako zenbat geratuko diren etxera itzuli gabe".

Migrazioen zioak, gehienetan, ekonomikoak dira. Beraz, teorikoki, badirudi irtenbidea litekeela, nazioarte-kotasunaren kontzeptua erreialismoz betez gero. Baina bestalde, ez dirudi genetikoki gai garenik migrazioek sor ditzaketen arazoei aurre egiteko.

Mundua zaharra da eta Homo Erectus deritzana Afrika, Europa eta Hego Asiar hedatzen hasten den unetik, neandertal, cromagnon, boski-mano, touareg, zelta...eta ehundaka herri ibiltari gehiago sortu da lur azalean. Gizadiaren historia da, bere akats eta bertuteekin. Gizonak bere arraza, kultura, erlijioa eta nortasuna zaintzen ditu, unibertsaltasunaren izenean. Migrazioen arazoa, kontraesa-netako bihotzean datza.

Josemari Velez de Mendizabal

## Uribarri Zeramiketean gauzkazu zain

Uribarri etorbidea 22, etxabehea  
79 81 80 / 77 09 59 ARRASATE

Axulei eta lurzoruen erakusketa eta salmenta; zure etxerako kalitatea eta aukera.



**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**BERANGO**

Aroztegia orokorra  
sukaldeko altzariak  
kanpo eta barruko atearak

Legarreko pabiloi industrialak  
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

**A. ZANGITU**

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE  
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA



**BELUN**  
taberna

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

**ARAMAIO**  
okindegia

Maisu Guridi 3,  
Tfnoa: 79 36 46

**Usteak usteri erantzuten**

Arrasate Presseko abenduaren 88. zenbakian, Joxe Aranzabalek, nire eritzirako, zenbait burugabekeria esaten duela ta, zerbait erantzutea bururatu zait.

Bere ustez, Mondragoeko alkateak Muruari esplikazio desagokia eman bide zion "Arrasatekoak horrelakoak gabela" esan ziolako "hemen batzuk horrela nahi izan zutelako" esan beharrean. Mesedez! Zerk ematen dio horrelako kontseilu xebreak emateko ausardia? Ni behintzat, mondragoetarra izanda, ez naiz esplikazio horregatik iraindua sentitzen, eta ez dut uste Muruari emandako justifikazio/esplikazioak kalte edo onik egingo dionik gure irudiari.

Ez dakit zergatik izango den baina bere eskuineko zutabe (Usteak uste) horiek, hitzez hitz erdarara itzuliz gero, Españan egiten den kazetaritza sentsazionalista eta merkeena gogora arazten didan...

Bene-benetan diozu "Alkateak aho bete hortz utzi zuela bat baino gehiago"? Ez nintzen bertan egon baina, Usteak uste, hori gezur biribila dela uste dut; eta horrelako gezur batek ez dio mesederik egingo ez mondragoetarrei eta ez Euskal Herriaren irudiari ere.

Ez naiz sartuko euskaldunok munduan daukagun irudiaren gaineko auzian, eta ez daukat Enziklopedia Britanikoa irakurtzeko beste ingles mailarik, baina Azkueren Hiztegiari egin diot konsultatxo bat, eta hara zer dakarren:

Aoa bete eginagaz itsi nabe (Bc) Aoa bete ortzekin utzi naute (G-and): me han dejado con un palmo de narices. Eta honek engainatu egin nautela edo burla edo barre egin didatela esan nahi du. Edo agian Alkateak inaugurazioko luntzeko jateko guztiak jan zituela eta besteak "ahoa bete hortzekin utzi zituela" gose handirekin joan zelako edo? Mokaurik gabe gelditu al zen Arrasate Presseko zuzendaria bere ahoa bere


hortz propioz soilik beteaz? Joxe Aranzabalaren eritziz Alkateak burlagile eta tranpatia suertatu zaigu. Ederra in jauu!

Zilegi bekiri niri ere besteen lekuan jartzea: ez dut uste J. Aranzabalek hori esan nahiko zuenik, HBko Alkatearenganako amorrua hain handia ez badu behintzat, "Alkateak, txokauta edo harrituta utzi zuela bat baino gehiago" baizik. Bueno ba hori ere, gezurra da, mondrauetarrok ez gara harrituta gelditzen horrelako esplikazio batekin eta Joxe Aranzabalek esaten diona esan balio gauzak ez ziren ezertxo ere aldatuko edo beharbada bi baino gehiago izango ziren harri eta zur geldituko zirenak.

Bueno ba, akabatzeko kontseiluak ematen dabilanari nik ere konsejuto bat emango nioke: Enziklopedia Britanikotik aparte Euskerazko hiztegi, Gramatika eta abarretan ere konsulta dezala euskaraz esan nahi dituen gauzak zehatzago esan ditzan. Arrasate Euskalduntzen dabilen aldizkariko zuzendariari hainbeste eska lekioko eta.

Gehiago barik, Agur.

R. Ugalde



# Zure ustez Kuwaiten inbasioak justifikatzen zuen gerra?




**Mertxe Hermosel**  
(Langilea)

Ez. Tontokeria iruditzen zait egiten ari direna, tontokeria hutsa.



**Rafael Gutierrez**  
(Langileak)

Ez. Hitz eginda ulertzen du jendeak elkar, eta elkarriketa gehiago egin behar da, azken muturreraino iritsi, gerra ebitatzeko.



**Garikoitz Barrutia**  
(Ikaslea)

Nik uste baietz, ze Kuwait momentu hartan nazio libre bat zen eta Irak sartu egin zen eta armen bidez lurraldea hartu. Gero beste kontu bat da Estatu Batuak sartu edo ez sartu gerran, baina bestela bai.




**Ibane Barrena**  
(Ikaslea)

Ez nago gerrarekin ados. Pentsatzen dut nahiko aurreratuta gaudela gaur egun, gerra batean hasteko.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!**

**ARRASATE - ESKORATZA**

# KOPIOTXOA

*Fotokopiak*


*Planu-Erreproduzioak*

*Enkuadernazioak*

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82  
ARRASATE

# Memesa

## 79 42 22



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

**Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak**  
**Otzaratzarrak**  
**Giltzak gordetzeko armairuak**  
**Erremintak eramateko gurdiak**  
**Erremintak gordetzeko armairuak**  
**Lan egiteko aulkiak**



## BEHARREZKO TELEFONOAK

### ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

### GURUTZE GORRIA

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

### DYA

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

### ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramio .....	(945) 45 51 16

### ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak .....	45 87 44
-------------------------------	----------

### UDALTAINGOAK

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

### ERTZAINZA

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

### SUHILTAILEAK

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

### MATXURAK

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

### GARRAIOAK


Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

### HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

### KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
--	----------



## 25

### OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai: "El cielo protector", 7 eta 9.30etan.
- Amaia: "¿Dónde te escondes hermano?", 10.30etan
- Novedades: "Henry eta June", 10.30etan.
- Mietzerrekako jaiak: jaien hasiera arratsaldeko 8etan, herri-afaria 9etan, eta erromeria "Anaiak" taldearekin.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres.

## 26

### LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai: "El cielo protector", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades: "Rocky V", 5 eta 7.30etan.
- Mietzerrekako jaiak: mus txapelketa arratsaldeko 5etan, 11etatik aurrera erromeria "Anaiak" taldearekin, txerri harrapaketa eta txokolatada.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

## Kirio Agenda

### FUTBOLA

• • •

- Igande arratsaldean, 4etatik aurrera Atxabalpeko futbolzelaian, Mondra eta Mungia taldeen arteko partidua.

### FUTBITOIA

• • •

- Zaldibarko futbito txapelketako lehen fasearen bukaera, 16 partidu.

## 27

### IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai: "El cielo protector", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades: "Henry eta June", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Mietzerrekako jaiak: auzokoen artean kirol frogak goizeko 10etan; 12etan Meza, eta 2etan buruhandiekien jaien amaiera.
- Al Andalus-en "Sueños de Andalucía" dantza taldearen aurkezpena, arratsaldeko 6.30etan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

## 28

### ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai: "El cielo protector", 7 eta 9.30etan.
- Novedades: "Henry eta June", 7.30etan.
- Famili eta Gizarte-Heziketarako zentruan "Sukaldaritza eta gozogintza" ikastaroa, 6.30etatik aurrera.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

## 29

### ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai: "El cielo protector", 7 eta 9.30etan.
- AEDn "Pertsonaren garapen psikologikoa" izenburuaz ikastaroa arratsaldeko 3etan.
- Besaide Mendizale Elkarteak batzar orokorra, arratsaldeko 7.30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

## 30

### ASTEAZKENA

• • •

- Famili eta Gizarte-Heziketarako zentruan "Eskulanen" ikastaroa, arratsaldeko 6.30etatik aurrera.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

## 31

### OSTEGUNA

• • •

- Hitzaldia AEDn. "Dibortzioa" arratsaldeko 3etan.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

### PILOTA

• • •

- Larunbata, goizeko 10.30etan Musakolan Arrasate-Azkoitia neurketa.

### ESKUBALOIA

• • •

- Larunbata, arratsaldeko 6etan Musakolan Arrasate-Bidebieta neurketa.

## Liburuak

• Euskararen hitzordena  
Komunikazio zereginaren arauera. Eusebio Osa.

Eusebio Osa irakaslearen liburu hau pozik hartuko du bere burua euskararen ibileraz hobeki jantzi nahi duenak, bai euskararen erabileraz berea eta besterenak trebatu nahi lituzkeenak.



Ez da gramatika bat gehiago, hori ere baden arren. Testuegokitasunaren teoriaren barnean kokatuko genuke. Euskarazko esapidearen hitzordena aztertzen da bertan, eta horren baitan, mintzagai-galdegaien gorabeherak jorratzen dira.

## Argazki-rallya

• Haratuzteak gaitzat hartuta, Argazki Rallya antolatu dute ASA argazkilari taldeak eta SUDC batzordeak. Karreteen kostua zein errebelatze lana antolatzaileen gain izango da, eta horretarako ikatz, Epelde eta Laso-Arregi dendetan jaso ahal izango dira otsailaren 8an arratsaldeko 6etatik 8ak bitartean, eta hartutako leku berean utziko dira otsailaren 13an, arratsaldeko 7ak aurretik.

Aurkeztutako bildumarik onenak 20.000 pta. jasoko ditu eta erdia bigarrenak. Argazkirik onenarentzat 15 eta bigarrenarentzat 5.000 ptako sariak jari



## Dantza saioa

### Sueños de Andalucía

Izen berezi horrekin emango da ezagutzera Arrasaten bizi diren andaluziarrek herrian sortu berri duten dantza taldeak. Al Andalus elkarteak, sortu zela urtea betetzen denean, datorren igandean arratsaldeko 6.30etan Sueños de Andalucía umeen dantza taldearen aurkezpena egingo da Uriburu kaleko 12an duen etxean. Beraz, sekula ez bezala, sevillanak, takol hotsa, koloretako jantziak, lorak eta peinetak, eta andaluziarren folklore berezienak lekua hartuko du tabladauren gainean. Telebistan ikusi ohi duguna bizibizian eta neskatila-mutikoen eskutik.

Hogei inguru dira Inmaculada Hernandez irakaslearen gidaritzapean dantzan ari diren umeak. Honietako batzuk Barakaldon egin zuten dantza, elkarte andaluzen ihardunaldietan, baina igandekoa Arrasateko estreinekoa izango da.

Ikuskizunerako sarrea irekia izango da eta arrasatear guztiak gonbidatuta daude.

dira. Sariketaren emaitzak otsailaren 20an jakin araziko dira, Monterronen egingo den erakusketaren barruan.

## Erakusketak

• Pintura

Oñatiko Etxe Aundi jate-txean Ana Mari Batanero margolari donostiarraren lanak dira ikusgai otsailaren 3a bitartean. Erakusketa asko egin eta sari ugari jasotako margolari honek San Fernandoko Arte Ederren Eskolan egin zituen ikasketak, eta Beka bidez Parisen ere egona da. Angel Garzaran kri-

tikoaren eritziz bere pinturan "garapen isil baina etengabea dago, eta emaitza bakoitzean hasierako lanetan kritikoek iragarritakoa sendetsi baino ez du egiten".



## Hitzaldiak

AED Elkarteak antolatuturik, Golkoko gerrari buruzko hitzaldia emango du Baleren Bakaikoa EHUko irakasleak. Zorigaitzoko Golko Pertsikoa: Zergatik borroka izenburupean emandako hitzaldiaren ondoren, debatea izango da hurbildutako guztien artean, gerraren zergatiak eta ondorioak. Urtarrilaren 29an arratsaldeko 7etan Monterron jauregian.

## Ikastaroak

• Yoga

Hirugarren Adinaren Animazio Programaren barruan, otsailaren 4ean Yoga ikastaroari hasiera emango zaio Ferial Eskolan. Arratsaldeko 6.30etatik 8etara izango da, eta Arrasateko Jubilatu guztiei zuzendua dago, dohainik. Sei hilabete iraungo duen ikastaro horretan parte hartzeko, Jubilatu etxe bakoitzeko Juntetan egin daiteke izen ematea, urtarrilaren 28tik otsailaren 2ra arte. Ikastaroaren helburua jubilatuei ejerzizioa egiteko aukera ematea da.

Arrasateko Yoga elkarteak ere Yoga hastapen ikastaroak antolatu ditu, bi hilabetetan zehar iraungo dutelarik. Urtarrilaren 28an hasita astelehen eta asteazkeneo 6.30etatik 8etara bitartean izango dira klaseak, elkartearen lokaletan.

• Masaia

Yoga Elkarteak berak antolatuturik, bestalde, ekialde eta mendebaldeko masaia teknikak eta nor bere buruari masaia emateko teknikak landuko dituzte. Urtarrilaren azken aste-buruan eta otsailaren 9 eta 10ean masaiaren hastapen ikastaro trinkoak izango dira. Izenematea egiteko pasa Elkarteko lokaletatik edo bestela dei egin telefono honetara: 79 35 76

“.....  
Arrasateko Udalak onartu edo justifikatu egiten du Saddam Husseinen Kuwaiteko inbasioa”, izan daiteke biharko egunkari guztien izenburua”.

(X. Lasaga EAJren zinegotziak  
Udaletxeko pleno aretoan)

“.....  
Euskaldun gazte hari (Jokin Zaitegi) jesuiten komunitateko bizitza jasan ezina izatera iritsi zitzaion, berak pentsatzen zuena eta era berean fraile-buruen aginduak betetzeko, eragozpen handiak aurkitzen bait zituen. Ez seminarioko erretoreak, ezta Ertamerikako jesuiten buruak, donostiar eta Francoren aldeko zen P. Ponsolek, eta ezta Erroman buru nagusia zen P. Ledóchowsky-k ere, ez zuten ulertu aberriarekiko zuen maitasunagatik errealitate eta ideiak zalantzan jartzen zituen euskaldun sutsu haren izaera. Pentsatuz han erlijioaren eta euskal kulturaren alde hobeto lan egin zezakeela, Jokin Zaitegik New York-era joatea pentsatu zuen, Euskadiko lehendakari zen Jose Antonio Agirre zegoen tokira, hain zuzen. Bere nagusiek, ordea, Idahora bidaltzea erabaki zuten. Ordurako, Zaitegi. Guatemalako apezpikuarekin, Mons. Arellanorekin, era atseginean hartu zuen pertsonarekin, egona zen. Hainbeste presioen eraginez oso nekaturik, 1944aren ekainean, Zaitegik jesuita izateari utzi zion, aurrerantzean herri-apaiz bezala lan egin asmoz”.

(Gorka Aulestia EHUKo irakasleak DV egunkarian)

Ume gutxiago jaiotzen direnez, zergatik Umezaintza berria?

Eraikuntza berria egiteko, bi arrazoi nagusi daude. Lehenengoa ulertzeko historia apur bat egin behar da: hasieran Umezaintza estazino zaharrean egon zen. Handik atera eta Altamirara ekarri zen; denontzat tokirik ez zegoela eta, atera beharra ikusi zen. Hala ere, ez zen guztientzat tokirik aurkitu, eta eskolaurrea izan zen San Josepera eraman zena, txikienak Altamiran gelditu zirelarik. Dena dela, erabaki hori beti probisionaltzat hartua izan da, asmoa denok elkarrekin egotea bait zen. Horrela sortu zen eraikuntza berri baten beharra, proiektua San Josepen egin zelarik duela lau urte. Proiektu hori aurrera eramateko zenbait arazo izan dira, bai eraikuntzari eta baita lurren jabeek zegokienez ere, eta ondorioz proiektua zaharkituz joan zen. Arazoak gaindituta, proiektua berriztatu egin da eta aurrera eramateko asmoa dago.

Bestalde, matrikulazioan igoera nabaria eman da azken urteetan. Nahiz eta ume gutxiago jaio, ikusten da gurasoak kontzientziazten ari direla eta pentsatzen aurrekoen mundua ona dela umeentzat, etxean landu ezin diren gauza asko lan daitezkelako bertan. Lehen jendeak uste zuen leku hauek guraso biak lanean ari ziren kasuetarako balio zutela bakarrik, baina orain konturatzen gara hori ere aldatu egin dela. Laburbilduz, esan behar erabaki zahar baten probisionaltasuna eta matrikulen igoera direla eraikuntza berria egiteko arrazoiak, Umezaintza osoa toki baten egon dadin.

Arantza Lejarraga,  
Umezaintza Haur-Eskolako zuzendaria




**FAGOR**



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

**GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN**

**ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA**



**PEÑACOBIA**  
Auto-Eskola

Zarugalde 46,  
79 14 01

**ARRASATE**

**ORTZI**  
**erretegia**

Angiozar auzoa

Tfnoa: 76 22 68 BERGARA



## Elgeta

Urte hasieratik, Elgetako kiroldegiko instalakuntzak erabili nahi dituenak gehiago ordaindu beharko du. Squash-eko pista 45 minutuz erabiltzeko 400 pta. ordaindu beharko dira, sauna erabiltzeko ordaindu behar den diru-kopuru bera alegia. Gimnasioa erabiltzeagatik 200 pta., Badminton-ean jokatu nahi dutenak 300 pza utzi beharko dituztelarik.

Esan behar da, aurrez aipatutako prezioetan dutxaren erabilpena sartzen dela eta bonoak ateratzea askoz ere merkeago ateratzen dela: besteak beste, %15eko merkeago hamar aldiz joanaz gero. Urte osorako bonoak bestalde, gutxienez hilero ordaindu beharko dira, nahiz eta aurretik hartutako orduetan ez joan polikiroldegira. Hamar aldirako bonoa momentuan ordaindu behar da.

Kiroldegia alde batera, esatekoa da elgetarrek datorren hilean, otsailaren 10ean zuhaitz eguna burutuko dutela.



## Bergara

Gasteizko gobernuak Bergarako Epaitegiko eraikuntzan berraldatze obrak egitea onartu du, horretarako 107 milioi pezeta erabiliko dituelarik. Onarpen edo erabaki horrek inongo apelaziorik jasoko ez balu, obrak otsailean hasiko lirateke. Orain arte, lehen instantziako hiru areto hartzen zituen bere baitan Epaitegiko eraikuntzak, eta lanak bukatu ondoren, berria gehituko zaie. Laugarren areto hori martxan jartzen denean, 20.000 pertsonako lehen instantziako epaitegi bat izango da Deba Garaian, diotenez Europako batabestekoa.

Areto berri bat irekitzeaz gain, minusbaliatuentzat igogailua jarriko da, epaileentzako liburutegia, eta atxilotuak edukitzeko gelak ere irekiko dira. Gogoratu behar, Bergarako lehen instantziako Epaitegiak, gaur egun Deba Garaian ematen diren denuntziak eramaten dituela aurrera. Beste modu batera esanda, 80.000 pertsonen beharrei erantzuteko pentsatuta dagoela.

Bestalde, asteburu honetan Ubera auzoan jaiak direla ere aipagarria da, ohizko erromeria, kirol saioak, auzokoen afaria eta umore ona ez dira faltako.



## Eskoriatza

Azkenaldian udalerrian eman diren txikizioak direla eta, Eskoriatzako Udala arduratuta dabil. Txikizio handienak Gabonetan gertatu ziren: Musika Eskolako kristalen apurketa, Corros-en buzoi batean sua, zabor edukiontzien jaurtiketa Deba ibaira, liburutegiko lapurketa, eta kalean ikusi diren borrokak.

Hori dela eta, Eskoriatzako Udalak neurri bereziak hartu nahi ditu, eta bilera bat burutuko du, gertatzen ari dena ikertu eta ondoren erabakiak hartzeko, berriro ere halako barrabaskeriarik gerta ez dadin.



## SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka  
Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

## ZUBIZARRETA TAILERRAK



Gipuzkoa Etorbidea 22  
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE

## FELIPE MADINA ZURAK

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

**Errepidea Altamirara**

Azken Gobernu Batzordeak Altamirara auzora joateko errepide berria Ferialeetik, aldapan gora, egitea erabaki zuen. Lan honen kostoen zati bat, Udalaren kontu joango da eta gainontzekoa Irgala enpresaren kontura. Altamirara joateko bidea Uherkapeko obren eraginez behera erori zenetik, auzokoak eskatuta, Udaleko zerbitzu teknikoak bide berria egiteko aukerak ikertzen ibili dira, egokiena bide berria Ferialeetik gora egitea iruditu zaielarik. Bide berri hori egingo den era berean, Ferialeko pilotalekua eraikitzeke lanak ere laster hasiko omen dira.

**Nuklearren aurka**

Estatuko zenbait taldek, zentrale nuklearrak itxi arazteko kanpainari ekin diote, asmo hori lege bihurtzeko, gutxienez, 500.000 sinadura behar dituztelarik. Arrasateko EKI eta Eguzki taldeek ere bat egin dute kanpaina horrekin, eta nahi duten arrasatearrek sinadura eman dezaten, bihar larunbata, arratsaldeko 7.30etan mahaia jarriko dute. Kanpaina beraren barruan ere, igandean Lemoizerako martxa burutuko da, autobusak goizeko 8etan Arbolapatatik aterako direlarik. Izenak emateko, Irati, Iturriotz, edo Biona tabernetan.

**Datu demografikoak**

Deba Garaiari dagozkion datu demografikoak eskuratzeko aukera izan dugu, eta lehenik esan behar bailara guztian 77.706 pertsona bizi direla. Aurrez emandako kopuru horretatik 26.367 Arrasaten bizi dira, 6.005 aretxabaletarrak dira, 4.004 Eskoriaztakoak, 207 Gatzagan bizi dira, 15.718 bergararrak dira, Antzuolan bizi direnak 2.130, Oñatin 10.884, Elgetan 1.044 eta azkenik, Aramaion 1.350.

# Txandaka

## ZAIN DEZAGUN URKULU

Azken urteotan Urkuluko urtegiaren inguruan sortzen ari diren eztabaida eta istiluek zeresanik eman dute.

Zenbait proiektu, ideia xorta eta erizpide ezberdinen ondoren, (enbarkaderoa, kanpinga, 400 kotxendako aparkalekuak, lau errepide berri zabaltzea, golf zelaia, hotela,...)-gure ikuspegitik inguru txiki eta lasai honetarako kalte handikoak -jarrera ezberdinak izan dira Aretxabaletan eta inguruko herrietan ere. Baina zorionez guretzat, sektore ezberdinek azaldutako jarraiek eta proiektuen irrazionaltasunak bereziki, "ideia" horiek inguruko biztanleen gogokoak ez direla adierazi dute, gutxi batzuen interes partikularren gainetik.

Hala ere, zoritxarrez, ez da denekin horrela gertatu. Bailara honetan botere berezia duen erakunde batek, Lan Kide Aurrezkiak edifizioa txiki geratu zaion aitzakiaz, orain arte bertako biztanleei ukatu zaien eskubidea jasotzea nahi du: "zona rural" deklaraturako lurretan interes partikularreko edifizio berria eraikitzea.

Beraz, aurrerago arazoitzen ditugun motiboak direla eta, proiektu berri horri gure eza-dostasuna azaldu nahi genioke:

1-Azken urteotan espantsio izugarria eta ezproporzionatua izan duten gure herrietan ditugun arazoak ukaezinak dira: kutsadura, trafikoa arazoak, paseatzeko zein lasai egoteko leku egokirik eza... Gauzak honela, beharrezkoa egiten zaigu oraindik arazo hauek ez duten toki garbi eta naturalagoetara jotzea, ordu batzuz ez bada ere, geure burua eta arima lasai izateko beharrezkin...

Urkuluko ingurua beraz, ukaezineko balore ekologiko, natural, kultural eta soziala duenez eta Leintz bailararentzat suposatzen duen espantsio tokia izanik, herrian ditugun arazoetatik urrun mantendu beharkeko inguru natural garrantzitsua dela uste dugu.

2-Zain dezagun Urkulu batzordea (bertako biztanle, afektatu, herritar eta eskualdeko talde ekologistek osatzen dugu) duela urtebete inguru sortu zen. Azken urteotan Urkulu inguruan sortu diren arazoei eta planifikazio ezari, modu



Juanjo Perez (\*)

globalean, denon interesak ahalik eta era egokienean jasoko dituen plana eztabaidatzen eta idazten saiatu gara.

Une honetan, Urkulun egin beharkeko aktuazioak ikuspegi integral batetatik ikertu behar direla uste dugu une honetan, LKak bere behar partikularrei soilik irtenbidea emateko asmoarekin, honelako erakunde ahaltsu batek dituen eraginak noraino heltzen diren erakutsi ahal izan dugu. Orain dituen asmoak lortuz gero, Aretxabaletako

Udaleko urbanismo departamentuaren urtetako lana prezidenterik gabe pikutara bota dezake.

3-LKAREN proiektua "Bien Social" den ala ez den erabakitzen ez gara sartuko. Izanda ere, batetik, Urkulu -arazoitzen saiatzen ari garen bezela- honelako infrastrukturek kokatzeko tokirik egokiena ez delako eta bestetik, Aretxabaletako udalbatzarrak, 90-11-16an izandako bilaren aktatik jaso ahal izan dugunez, LKak benetako beharrak balitu, orain eskatzen duen edifizio berri hori kokatzeko beste etxe bat baduelako: lkasbidetik 300 bat mtara Iruikua baserria.

LKak nahi duen bezala, edifizio berria eraikitzea irrazionala iruditzen bazaigu, irrazionalagoa da oraindik, beste edifizio bat izan eta, hura bota, bertan aparkalekuak egin eta beste toki batean edifizio berria eraikitzea.

4-Orain arte Aretxabaletako nekazal inguruetan bizi diren biztanleek edifizio berriak eraikitzeke, zailtasun eta debekuak izan dituztelarik, LKAREN eskakizuna prezidenterik gabeko gehiegikeria iruditzen zaigu.

90-11-16an Aretxabaletako Udalbatzak egindako ezohizko bileran Otarorako proiektuak interes soziala duela erabaki zuen, eta Gipuzkoako Diputazioak argi berdea eman dio proiektuari.

Egoera horren aurrean, honako hau proposatzen dugu: Aldundiak birplantea dezala hartutako erabakia. Lan Kide Aurrezkiak etxe berria behar izatera, Iruikoa erabil dezala, eta Urkulu inguruan edozein aktuazio berri egin aurretik gaurkotasuneko plan integrala burutu dadila.

(\*) Zain Dezagun Urkulu Batzordekoa

**BURGALES JATETXEA**

**Jaki goxoak eta giro atsegina**

**Durana 12, Aretxabaleta**

**Osorik  
pub**

**Ignazio Zuloaga kalea Arrasate**



Azken Osoko Bilkuran ez zen eztabaida gehiegirik egon.

## Golkoaz ikuspegi desberdinak

### Udala auzitegitara joango bere burua defendatzera

Azken osoko bilkurak ez zuen konplikazio handirik izan. Hirigintzari dagokionez, onartu egin ziren Santa Barbara eta Garibai kaleko lehengo Roneoko urbanizazio proiektuak. Olandixo mendialdeko plan partzialaren aldaketak ere onartu ziren. Baita Gorostiza etxebizitzaren kooperatibak egindako lur-lagapena ere.

Altamirako bidean dagoen Azatza-auzoak jarritako erreskurtsioa ez zuen onartu plenoak, baina Uherkape deitzen den inguruan egondako lur mugimenduak direla eta, Azatza-auzokoek auzitegitara eramango dute Arrasateko Udala. Plenoan onartu bezala, Mondragoeko Udala Bergara eta Donostiako auzitegitara aurkeztu beharko da, bere burua defendatzeko.

Hori ez da baina, Arrasateko Udalak bisitatu beharko duen auzitegi bakarra. Biltegizain eta udaltzain lanpostu bana

aukeratzeko orduan erabilitako oinarriekin Madrilgo gobernua ados ez da goenez, Euskal Herriko auzitegian jarri du errekurtsioa eta Udala beraz, Bilbora joan beharko da defendatzera.

Onartu egin zen bestalde, Mankomunitateak enplegu eta hezkuntzarako zein ingurugirorako zerbitzu bakarra sortzea bailararako.

Bestalde, esan behar Toki Argi tabernaren esplotazioa Virtudes Caballerori eman zitzaiola.

Eztabaida Gerraren kontrako Euskal Batzordeak aurkeztutako mozioak eragin zuen. EAJk eta PSOEk ez zuten zegoenetan onartu partziala zelakoan, baina aurrera atera zen HB, EA eta EEren botuekin. Ondoren, ahobatez, EAJk eta EEk aurkeztutako mozioa onartu zen, Nazio Batuek Ekialde Hurbilerako eman dituen agianduak bete daitezela eskatuz.

## Usteak uste

Jende gutxi joaten da Udaltzaren Osoko Bilkuretara, plenoetara. Berriemaileak eta kuriosoren bat edo beste. Egia esan, ez da berrikuntza handirik izan, sozialistek euskararen aurrean azken hilabeteotan hartu duten jarrera ez bada. Euskaraz esaten den guztia itzultzea eskatzen dute, nahiz eta gero idazkaria itzultzen ari den bitartean euren artean berbetan ihardun, itzulpena bera baino itzultzearen sinboloari garrantzia ematen diotela argi erakutsi nahian edo.

Sozialisten jarrera honek luzatu egiten ditu plenoak era artifizialean eta han daudenak aspertarazi. Baina hori ez da ondorio bakarra. Zinegotzicn arteko bateren batek amore eman eta itzulpenak ekiditeko biderik laburrena hartu du, gazteleraz hitz eginez, noski. Joan den asteko Osoko Bilkuran adibidez, Xabier Lasagak erdara baino ez zuen erabili hitza hartu zuen guztietan. Inork ukatu ezin dion eskubidea du hori egiteko, baina tristeia izango litzateke Nafarroako euskal irratiei bizitzeko posibilitate legala ukatzen dien parduak euskararekiko hartu duen jarrera historikoaren eraginez dela jakitea.

Arraro egiten da, bestalde, mozioa plenoan aurkeztu eta norbera bertan ez egotea mozioa azaldu eta defendatzeko. Hori gertatu zen iragan ostiralean Golkoko Gerraren Aurkako Batzordearekin.

Joxe Aranzabal

## LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,

Erakusketa: Sancho Abarka 6,


ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



Ileapaindegi mistoa

Erguin 15, etxebehea.

Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE



Prentsaurrekoan azoka mantenduaren alde agertu ziren

## Ez atzera ez aurrera azoka plazan

### Legearen barruko akordioa bilatuko da bi hilabietetan

Merkatu plazako saltzaile ibiltariei saltokietan egoteko epea amaitu ondoren, epea bi hilabetez luzatzea erabaki du Udalak. Bien bitartean akordio bidea lortzeko formula berriak aztertzeari ekin dio Udalak, beti ere Jaurilaritzako Legeak ezarritako markoaren barruan, joan den astean Alkateak eta azokaren ardura-dunak aditzera eman zuten.

Udalak egindako epe luzatzeari erantzunez, aukera hori eskertzen dutela eta negozioaziorako moduko jarrera ikusten duten arren, harrigarri iruditzen zaiela banan banan eskabideak aurkez-

tu behar izatea esan dute saltzaileek. Besterik esan izan bada ere, hauen eritziz MaxiEroski irekitzean izandako beharakada berriz ere lehenera etorri da, eta horregatik Arrasateko herriari urte luzeetan eskaini dioten zerbitzua-ekin jarraitzeko borondatea azaldu dute.

Udalak, bere aldetik, merkatuarekin jarraitzeko duen borondatea berretsi zuen (hartarako izendatutako 32 milioiak lekuko), eta subastarako arrazoen artean, oraingo saltzaileen artean batzuk aukeratzeaz gain, kanpokoei ere aukera ematearen beharra aipatu.

### ▣ Istripuen kopuruak

Dagoeneko, Arrasateko Ertzaintzak iazko urtean Deba Garaian gertatu ziren istripu eta alkoholemia kontrolen berri. Ertzaintzak emandako datuen arabera, iaz 554 istripu gertatu ziren, 447 zauritu barekorik, 86 zauri arineko pertsonarekin, 16 zauri larriaz, eta gainontzeko 5 istripuetan hildakoak egon ziren. Pertsonen datuei begiratuz gero, 150 izan ziren arinki zaurituak, 17 larriki zaurituak, eta 5 hil zirenak. Alkoholemia kontrolei dagokienez, esan behar iaz 67 burutu zirela, 1.103 pertsona kontrolatuz, eta horietatik 77k bakarrik eman zutela positibo.

### ▣ Elkartearen bazkaria

Extremadurako kultur Elkarteak, "Corazón de encina" izenekoak, otsailaren 9an Musakolan anai arteko bazkaria burutuko du. Bazkarira, Arrasaten bizi diren extremeño eta sinpatizatzaile guztiak konbidatuta daude. Bazkariaren prezioa, 2.500 pezetakoa da eta izenematea Basilio taberna, San Andres tabernan, Mateo tabernan, Castillo tabernan eta Pancraccio ileapaindegian.

### JAIOTZAK

Peña Gomez **Daniel Israel**, urtarrilaren 11an.  
Gonzalez Uribarren **Nerea**, 14ean.  
Ugarte Bautista **Sheila**, 14ean.  
Barrena Altube **Unai**, 17an.  
Almeida de Albuquerque, **Nunu Filipe**, 19an.



## Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea  
Jose M<sup>a</sup> Gomez doktorea  
A. Ofora doktorea  
A. Estomba doktorea  
M<sup>a</sup> Jose Ruiz doktorea

*Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.*

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...  
Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...


Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara  
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE

1990



# SASKI NASKI

Lehiaketa

## OIKENDO KIROLAK



Zatoz gurera  ikustera.  
Banatzaile ofiziala

## Jose Aranzabal



TB, HI-FI, BIDEOKAMARAK




### ASTE HONETAKO IRABAZLEAK

- ▲ JORDAN B.
- ▲ LAURA PEREZ
- ▲ NEKANE BELINCHON

## J. URIARTE



Arrasateko zein taldek grabatu berri du diskoa?



SASKI NASKI ZOZKETAKo opari handiaren zozketa, urtarrilaren 30ean egingo da.

ERANTZUNA: .....

Izena: ..... Helbidea: ..... Tfnoa: .....

**□ Epe amaiera**

Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuak jakitera eman duenez, Udal Zergak ordaintzeko laguntza eskatu nahi dutenei, hilaren 28an eskakizunak egiteko epea bukatuko zaie. Laguntza hori eskuratu nahi duten guztiak, aipatutako epea bukatu aurretik Gizarte Ongizate Zerbitzutik pasatu beharko dira.

**□ Euskararen neurketak**

Otsailean, euskararen erabilpena Arrasateko bizitza publikoan zenbatekoa den jakiteko, neurketa egingo du Udalak. Santamaina, San Andres, Erguin, Musakola, eta Erdialdean burutuko dira neurketok, jendeak kalean euskaraz ala erderaz hitz egiten duen jakin asmoz. Iazko neurketetan 6.881 pertsonak zereabilgela hizkera neurtu zen, euskaraz 982 ari zirelarik, %14.3a.

**□ Harresia gordetzeko diru-laguntza**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultur Batzordeak Arrasateko Udalari 5.300.000 pezetako dirulaguntza eman dio, Arrasate pasealekua eta Zerkaosteta kaleen artean aurkitu zen harresia gordetzeko lanak buru ditzan. Jakina denez, Udalak harresia dagoen tokia erosi zuen, 25 milioi ordainduz, era horretan galdu ez zedin. Lanak bukatzen direnean, harresia jendaurrean izango da, eta altueran hiru metro izango duen lokal baten barruan gordeko da. Hormak kristalezkoak izango dira.



Urkuluko urtegiak orain itxura hau erakusten du

## Urkulu, kapazitatearen %69an

*Azken elurren eraginez igoera nabaria eman da*

Azkenengo elur eta euriek izan dute bai, eraginik Urkuluko urtegiaren egoeran. Onerako, argi dagoenez, 328.27 kota markatzean, azken lau urteetako kotarik garaienera iritsi bait dira bertako urak. Horretaz gain, esan behar da urak urtegiko kapazitatearen %69.10a betetzen duela, 6.910.000 metro kubikorekin. Ur kopuru hori kontuan hartuta, Foru Aldundiko arduradunek, aurtengoan ur arazorik ez zela espero behar zioten, nahiz eta joan zena, oso urte lehorra izan zen.

Ezin daiteke esan zehazki, kopurutan, zer ondorio izan duten mendietan eroritako azken elurteek, baina adituek ziotenez, azken hilabeteetan Urkuluko urtegiaren kapazitatea %55etik %60ra bitartean egon ondoren, urte hasieran eman den igokada nabaria izan da. Gogoratu, iaz Urkulun eman zen neurketa baxuena urriaren erdialdean izan zela, 5.124.201 metro kubikorekin, urtegiaren %51ko kapazitateaz hain zuzen. Beraz, ordutik %19.10eko igoera eman da.

# BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

ARETXABALETA

**URONDO**  
eletrizitatea




Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak



Kontzezino 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE



**SAMEGO**  
GARBIKETAK

Uriburu 24,  
Tfnoa: 79 70 39  
ARRASATE



Zerbitzu berria eskainiko du Aita Menni ospitalak

## Eguneroko zerbitzua S. Agedan

*Akordioa sinatu ondoren, %26an igo da aurrekontua*

Joan den asteazkenean, Santa Agedan Osakidetza eta Aita Menni ospital sikiatrikoaren arteko akordioa sina zen, ospitala osasun sare publikoan sartu dadin, baina izaera propioa galdu barik. Aita Menni ospitaleko monja-arduradunak zioenez, akordiora iristeko elkarrizketak zailak izan omen dira, baina lortutako akordioa gaisoen onerako izango delakoan sinatu dela.

Akordioaren arabera, hemendik pare bat hilabetera egunez eguneko zerbitzua jarriko da martxan, egunero lagun-

tza behar duten gaisoek -baina ospitalizatu beharrik ez daukatenak-, laguntza hori izan dezaten. Egunez eguneko zerbitzu honek, beharra duten gizonezko eta emakumezkoak hartuko ditu. Zerbitzu honen sorrera dela eta, ospitaleko funtzionamendu gastuetan %26ko igoera eman da, aurten 917.934.000 pezetako aurrekontua erabiliko duelarik. Funtzionamendu gastuen igoera, zerbitzu berrirako 27 pertsona kontratatu behar diren ondorioz dator.

### San Felipe Apostol

San Felipe Apostol Elkarteko bazkideek igande honetan izango dute urteroko bilera. Igande eguerdiko 12.15etan, San Viator Ikastetxean, honako gaiok aztertuko dituzte, ohizkoetz gain: azken urteko ekintzen txostena onartzea, diru balantzea, aurtengo urterako administrazio gastuen aurrekontua, kuotak kobratzeko proposamena eta zuzendaritza batzordearen berritzea. Igandean San Juan Bataiatzailearen parrokiaren goizeko 11etan izango den meza nagusia hildako bazkideen oroienez izango da.

### Haratuzteak badatoz

Iazkoari begiratuz gero, ez da al-daketa gehiegi izango Udalak Haratuztearako prestatuko duen jai-egitarauan. Oraindik gauzak ez daude zeharo zehaztuta, baina burutuko diren ekintza batzuk aurrera daitezke. Larunbatean, 9an, sokamuturra, konpartsen irtenaldia, dantzaldia, eta iaz bezala, Amaia antzokian "Play Basck" jaialdia burutuko da. Iganderako berriz, hilaren 10erako, ume-antzerkia, dantzaldia, eta baliteke suzko zezena ere egotea. Astearterako, 12rako, arratsaldeko 4etarako haurren desfilea prestatuko da, ondoren txaragaren baten ekitaldia izango delarik. Gauean berriz, mozorro-lehiaketa, eta dantzaldia "Inguma" taldearekin, sardinen ehorzketaz haratuzteei bukaera eman aurretik.

## ANALISI KLINIKOAK, LABORATEGIA

*I. Laborra Erdozain*

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebisa, Asisa, Capisa)  
**GINEKOLOGI KONTSULTA**

Zerkaosteta 17, etxabehea, Tfnoa: 79 20 18  
ARRASATE

I  
R  
A  
T  
I

**Ferrerias kalea**  
Tfnoa: 79 71 80



**CNN**

Golkoko gerra dela eta, **CNN** telebista amerikarra denon ahotan dabil, une garrantzitsuetan aldi berean mundu guztira heltzen zen informazio-iturri ia bakarra izan delako. ETBk kontratu berezia du katea amerikarrarekin eta horren barruan hilero Euskal Herriari buruzko hiru minutuko erreportaiak bidaltzen dizkio. **Asier Aranguren** aretxabaletarra da, hain zuzen, joan den irailetik erreportaiak egin eta Atlantara *World Report* programarako bidaltzeaz arduratzen den kazetaria.



**San Sebastianetako tanborrada** famatua ez da Donostian eta Azpeitian bakarrik egiten. Joan den ostiralean Arrasateko eskola askotan entzun ziren danbor hotsak eta umeen kantuak. Horien artean zeuden Aretxabaletako eskolaurrekoak ere, abestia ikasten luzaro jardun eta gero kaleak alaitu zituztenak.



◀ **Miren Argi Oria** eta **Lesmes Perez** Arrasateko parrokian ezkondu ziren urriaren 13an. Bazkaria egiteko Aretxabaletako Taberna Berri jatetxea aukeratu zuten, eta bidairako berriz Palma de Mallorca. Zorionak !

**Urtarrilak 25, OSTIRALA**

- **Arratsaldeko 8etan** Jaien hasiera
- **9etan.** Herri afaria jubilatuen omenez
- **11etan.** Erromeria *Anaiak* taldearekin

**Urtarrilak 26, LARUNBATA**

- **Arratsaldeko 4etan.** Ume eta gazteentzako jolasak, herri kirolak,
- **5etan.** X. Mus Txapelketa

Sariak:

1. 25.000 pta. txapelak eta trofeoa.
2. 15.000 pta. eta trofeoa.
3. 10.000 pta.
4. 6.000 pta.

Oharra: izenak txapelketa hasi baino ordu erdi ehenago emango dira. Bikote bakoitzak: 2.000 pta.

**SAN VALERIOKO JAIAK**


**Meatzerreka  
auzoa**

- **11etatik aurrera.** Erromeria *Anaiak* taldearekin
- **Goizaldean.** Txarri harrapaketa eta txokolatada

**Urtarrilak 27, IGANDEA**

- **Goizeko 10etan.** Auzokoen artean Kirol frogak (futbola, txirrindulariak, etab.)
- **12etan.** Meza, San Valerio ermitan, herriko koruak abestuta
- **2etan.** Buruhandiak eta jaien amaiera





Blanca Roncal



Mertxe Ruiz de Uzkiano


PSOE Gasteizko Gobernu berriatik kanpo gelditu denez, Jose Manuel Freire Osasun sailburuak ordezkotzalea izango du, jeltzalea zehatzago izateko. Hori dela eta, **Blanca Roncal** eta **Mertxe Ruiz de Uzkiano** Eskualde Ospitaleko eta Anbulategiko zuzendariak hurrenez hurren, egunak zenbatuta izango lituzkete oraingo karguetan. Dirudienez, Donostiatik zehar, sozialisten zerrendan Arrasateko alkatesagai izateko proposamena egin zioten Blancari. Mertxek bere aldetik, Ramon Jauregiren aldeko kanpaina sinatu zuen azken hauteskunde autonomikoetan. Anbulategiko zenbait langilek diotenez, agur-afaria oraingoan mundiala izan daiteke.

Izen  
**PROPIOAK**

● **JOSEBA QUEVEDO**, 39, donostiarrak Automatika Industrialeko katedra atera du Tarrasako Injineru Eskolan, Josebak Eskola Politeknikoan ikasi zuen Injinerutza, eta Toulousen doktoradutza. EPPn eta Ikerlanen lan egin ondoren, Bartzelonako Unibertsitatera joan zen, Zibernetika ikertzeri. Katalunian bizi da, emaztea eta bi seme-alabarekin.

● **ANA MARI LANDA**, 25, iruñearra izan da aurtengo Arrasateko Haratuzteak iragarriko dituen kartelaren egilea. Ana Mari Dekorazioa eta ile-apaintzailtza ikasi zuen Logroñon eta marrazkiena, zaletasunez egiten du. Maxi Eroskiko kaxan egiten du lana.

● **JESUS MARI HERRERO**, 36, arrasatearrak berriro ere Arrasate eskubaloi taldea zuzenduko du entrenatzaile berriren bat aurkitu arte. Jesus Mari zazpi urtez entrenatu du Arrasateko taldea, iaz denboraldi bikaina egin zuelarik. Lan Kide Aurrezkian lan egiten du eta ez-konduta dago.



◀ Aurreko astean zozketarik egin ez genuenez, pasa denean bikoitza izan zen Sasi Naskira txartela bidali zutenen aukera. Horrela, sei sarituen artetik lau baino ez ziren argazkira ateratzera etorri Aranzabalenera: **Ainhoa Giraldo**, **Jon Gonzalez**, **Josu Bartolome** eta **Jabi Guardo**. **Iker Okaranza** eta **Lorea Astondoak** ez zuten etortzerik izan.



**ARANBURU  
COTEMAR**

Garraio agentzia



Zaldize 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

**ETXE-  
-AUNDI**

Ostiraletan  
d a s t a t u  
g u r e  
m e n u  
b e r e z i a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**Onduline**

**TXOMIN HERIZ**



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

# Udalara egunpasa

**Ingurugiro Eskola ireki ondoren, astegunetako eta asteburuko programak, umeengan naturarenganako kezka pizteko**

**U**dalako Auzo-eskola itxita zegoen aspaldian, eta Ingurugiro eskolarentzat toki aproposa izan zitekeela bururatu zitzairen Udaltxean. Eskola zaharraren solairu bakarrari beste bat erantsi eta martxan dabil dagoeneko, astean egun bitan Arrasateko eskoletako umeei atea irekiaz. Oraingoz aproba bezala, fase esperimentalean daude urtariletik apirilera bitartean, eta hasiera batean Arrasateko umeak pasatuko dira Udaltatik, aurrerago Mankomunitateko herrietara eta gero Gipuzkoara eta Euskal Herri osora zabaltzekotan badira ere.

## Hasieran

**E**skola sortzearen lehen ideia orain hiru urte sortu zen, nahiz eta lehen txostena duela urte bi arte egin ez. Subentziobide eske joanda, etxearen berregokitze lanetarako 27 milioi emateko konpromezua hartu zuen Gipuzkoako Diputazioko Hiri-gintza, Arkitektura eta Ingurugiro Departamentuak. Horrez gain, ekipamendurako eta berregokitzearen gaitetiko bezala behar ziren 14

milioiak Arrasateko Udalak jarri zituen. Umeekin egingo ziren proiektu ezberdinak lantzeko, urtebete egin du talde pedagogikoak lanean, eta benetako aktibitatea joan den irailean hastekoa bazen ere, konponketa lanetan hainbat atzerakizun izan ziren, uztailean kontratatu bait ziren 1919an Udalan eraikitako auzo-eskolaren berritze lanak.

Zuzendaria, iharduera dinamizatzailea, eta Irakasle Eskolako irakasle bat eta bi ikasle bekadun daude guztiaren kargu. Oraingoz, proiektu mota bi jarri nahi dira martxan: egun bakarreko egonaldiak, eta asteburukoak. Lehenaren barruan, astelehen eta asteazkenetan

hartuko dituzte umeak, eta gainerako egun bietan programaketak prestatzeari ekingo diote. Asteburuko egotaldia hilean behin egingo da, eta oraindik talde



Ibilalditik bueltan botak erantzi behar dira atarian

bakarra daukate izena emanda. Ekitaldi hori bultzatzeko asmoa daukate Udalan, eta ez dadila ekintza mota hori astegunarekin identifikatu, asteburuan ere etor daitezten. Ikasturtean zeharreko programazioarekin lotura estuagoa bilatu nahi dute

## Egun bat Udalan

**E**gunpasa datozenentzat aktibitate ezberdinak daukate antolatuta: goizeko 9etan Udalara iritsi eta ibila-

roaren inpaktoa, gizonak naturan duen eragina, landaria... "Ibilbidearen bidez ingurunea ezagutzea da helburua, eta ezin dugu hitz asko eta zuhaitz mota gehiegi sartu, umeen buruan geratzeko adina bakarrik. Udalako etxebizitzak ezagutu eta eurak bizi diren tokioekin gonbaraketak egiten dituzte gero umeek". Arratsaldean beste lan mota batzuk egiten dituzte, eta kutsaduraz, gune urbanoen beste arazo batzuek kontura daitezten, erreflexio eta eztabaida saioak burutzen dituzte umeek eurek.

Laborategia ere badago Udalan, eta egun bakarreko bisitaldian arratsaldean sartzen dira neska-mutikoak hara. Kanpoan batutako harriak aztertzen dituzte, mota ezberdinekoak, naturalak eta gizonak sortutakoak bereizteko. Arrasateren egoera ekologikoari buruzko bideoa erabiliaz, ekosistema zer den ezagutzen dute gaztetxoek, goizean ikusitako errealita-

## Umeak euren inguruarekin lortzea da Ingurugiro Eskolaren helburua

dia egitera irtetzen dute lehenik. Ibilbidean zehar ezarritako dauden geldidunetan gauza ezberdinak aztertzen dira; ekosistema bat, elementuen arteko erlazioak, ingurugi-

teari alde teorikoa ezartzeko. Ulerterraza gerta dakien, aurrez nahiko lantzen da definizioa neska-mutilek euren aldetik bilatzea. Bideoa ikusi ondoren eztabaida saioa egiten da, egoera asmatu baten aurrean taldeko jarri eta eritziak eta jarrerak azaldu eta defenda araziaz. Umeak azkenean, ez du bere eritzia botatzen, tokatutako papera oso ondo errepresentatu eta ordezkatzeko duen horrek esango lukeena botatzen du. Arratsaldeko betan aldegiten dute etxera.

**Ekipamendua eta auzoa**

**A**uzo-eskola bezala solairu bakarrekoa zenari beste bat erantsi diote, eta etxe horrek biltzen ditu gela balioanitz, laborategia, sukaldea eta jangela, bilogela, bulegoak eta bilera-gela,



Etxe-kontran pilotalekutziki bat dago

har ez duten arren, asteburuetako programei ekiten dietenerako aukera ezberdinak aztertzen ari dira, Auzo Lagun enpresarekin edo auzoko tabernariekin, norekin egin jatorduetarako tratua. Orain, ogitartekoarekin etortzen dira umeak.

Auzoa eta auzotarrak dira Eskola horren beste aldea, izan ere, hainbeste ume baserrien inguruan ibiltzearen ondorioz gerta litezken ez-beharretarako hitzarmena sinatzea onartu dute Arrasateko Udalak eta auzo alkatetzak, auzokoekiko harremanetarako biderik zuzen eta egokiena horixe delakoan. Etxean bertan, bulegoa izango dute auzokoek, auzo alkatetzaren lanetarako, eta edozein bileretarako.

**Apirilera bitartean ikastetxe guztietako 6. mailak pasako dira**

komunak eta dutxak, eta horrezaz gainera ur beroa, berogailua eta telefonoa biltzen dira 350 metro karratutan. Sukaldeari dagokionez, kanpotik ekarritako janariak berotzeko dago bakarrik prestatua, eta oraingoz be-

**“Goizetan hotz egiten du”**


**S**an Andres Eskola Publikoko 6. mailako neska mutikoak izan dira aste honetan Udalako eskolan. Goizeko ibilbidea bukatutakoan, ibilbidea ondo dagoela iruditzen zaie *“nekatu ere egin gara baina. Goizean goiz hotz egiten du, gainera”*. Berriz ere etorriko omen liriteke *“baina asteburuan, e? Asteburu guztirako ere etor daitekeela esan digute”*.

Egun bat eskolatik kanpo pasatzearen pozean, gustora dabilta neska-mutikoak. Baina eskolako begiraleek lan handia dute talde horretan bezala 28 ume zaintzen, eta ibilbidea egiteko orduan ere talde txikiagotan banatu behar izan dituzte. Gainera, ingurunearekiko denok dugun kontzientziarik eza dela eta, noizean behin atentzioa eman behar izaten zaie: *“ez pasa zuhaixkak landaruta dauden tokitik. Zertarako da bidezidorra?”* Badago, bai, zer ikasirik.

**K**abia **altzariak**  
 Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

**BRANKA**  
**jatetxea**  
 Eguneko menua eta karta


# DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hiztegia eduki ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzaloke Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzki dotore eta, aidi berean, erabilerrazak.
- Marmol berde koloreko zuntzi-larruzko azalak, 24 kilatetako urrez sutan eginak ezantzipaziekin.
- Landare-hariz jositate pleguak.
- Paper sendoa pikia-pikia bat hezur kolorekoa.
- Fotokonposizioa bi zutabetan egina, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.

DICCIONARIO AMAIA DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



**Euskara ikasteko erabili beharreko obra**

**OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tñora. (ARANTZA)**

**Ernesto Amaia Argitaletxea**

Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO

Tfnoak: 94-445 46 89 eta 446 69 93

**LASTER PREZIO IGOERA**



# Baloi bila

**Datorren  
astean  
hurrengo  
faserako  
paseak zein  
taldeentzat  
diren ikusi  
behar.**

**B**atzuentzat alferriko ahalegina izango bada ere, azkenera arte burrukatu beharra dago, oraindik erabakitzeke daude gauzak eta. Argazkikoek bezala, datorren asteburuan ahalegin guztiak egin behar aurrera egiteko.



Jabier

# IKER

SUKALDE-ERAKUSKETA: Udala enparantza z/g, Tfnoa: 79 00 43

BAINUGELA-ERAKUSKETA: Zarugalde 52, Tfnoa: 79 99 42

# ARRASATE KIROLAK

Konizeziño 8, ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12



# A taldea

SAILKATUAK

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Sumin Ugarte	13	11	0	2	71	28	22
Bizkorrak	13	11	0	2	55	31	22
Golfos Persicos	13	9	3	1	70	28	21
Zortzikin nahiko	13	9	1	3	63	35	19
Autovia patutia	13	9	1	3	49	39	19
Potrozorri	13	8	1	4	43	39	17
Mutikotes	13	6	0	7	40	37	12
Kakajauri	13	4	2	7	24	44	10
Bar Alcalde	13	4	1	8	39	73	9
Ezkinako ontzak	13	3	3	7	30	55	9
Yokese	13	3	3	7	25	45	9
Cañ. Pto. Urraco	13	3	2	8	30	37	8
Bayern de Leniz	13	2	1	10	35	70	5
Ugarixoak	0	0	0	0	0	0	0
	182	82	18	82	574	574	182

# B taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Zuloak	13	12	0	1	87	28	24
Arrasate Kirolak	13	9	2	2	57	37	20
Los Heredia	13	8	2	3	75	35	18
Kriskibalda	13	8	2	3	57	33	18
Laso Arregi	13	8	2	3	55	40	18
Sokoa-600	13	7	2	4	42	45	16
Toki Eder	13	6	0	7	53	73	12
La ira de Odin	13	5	1	7	51	59	11
El Regreso	13	4	2	7	52	64	10
Okendo Kirolak	13	4	1	7	45	55	9
Solano 90	13	4	1	8	45	60	9
Aizpun bila	13	4	1	7	37	57	9
Resakas	13	3	0	10	31	88	6
Gimnasio-Saioa	0	0	0	0	0	0	0
	180	82	16	82	693	693	180

# C taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Alperrak	14	13	1	0	101	35	27
Pepelus	14	11	0	3	60	40	22
Fosforos	14	10	0	4	84	62	20
Diego Antonio	14	10	0	4	83	43	20
Artano	14	8	3	3	69	43	19
Zelai	14	8	2	4	88	45	18
Bar Kajoi	14	8	2	4	71	49	18
Los motz	14	7	0	7	67	70	14
Sannan Hussein	14	7	0	7	49	52	14
Kannabis boys	14	6	1	7	57	60	13
Danok lagun	14	4	3	7	57	71	11
Muru Barren	14	4	0	10	36	66	8
Bacilona	14	2	3	9	49	77	7
Steaua del grifo	14	3	1	10	31	99	7
M.G.M.	14	2	2	10	30	106	4
Neptune	0	0	0	0	0	0	0
	224	103	18	103	932	932	224

# D taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Argi ibili	14	14	0	0	143	36	28
Lorategi-Potroak	14	12	0	2	74	43	24
Adelaida	14	10	0	4	72	32	18
Rayo Vatika-no	14	9	0	5	54	51	18
Cameron's	14	8	1	5	89	48	17
Sisepuede	14	8	0	6	62	30	16
La ban. de Pepe	14	7	2	5	61	54	16
Artzanko's	14	7	2	5	58	42	16
Balaik	14	8	0	6	49	48	16
Babarias	14	5	3	6	41	50	13
Gau azkenak	14	6	0	8	39	44	12
Avinagraos	14	4	1	9	37	69	9
Gastao	14	3	2	9	38	98	8
Inter de alimañas	14	2	0	12	33	88	4
Sukumu-Aterpe	14	1	2	11	24	68	4
B.B.V.	14	1	1	12	24	97	3
	224	105	14	105	898	898	224

a.eme.interiores

GARIBAI 9  
20 500 ARRASATE  
(GIPIZKOA)  
Tlfnoa: 943-791503  
Telefax: 791489



Batek baloia daraman bitartean, besteak lapurtzeko ahaleginak egin behar ditu. Bitartean, kontraerasoak eskatzen duen bezala, atzekaldea ere ezin da ahaztu eta horregatik atzelariak begiratu besterik ezin dezake egin.

# OPEL

Hobeak esperientziaz

TALLERES OLA, S.A.

Erakusketa Arrasaten:  
Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

## E maitzak

### A taldea

Zortzikin nahiko 3	Eskinako ontzak 3
Bizkorrak 6	Atutemelele 4
Yokese 4	Cañon Pto.Urraco 3
Mutikotes 4	Golfos Persicos 6
Potosorri 5	Kakajauri 1
Ugarixoak 0	Autovia patutia 1
Bar Alcalde 3	Bayem de Leniz 2

### B taldea

Laso Arregi 4	Arrasate Kirolak 4
Toki Eder 1	Sokoa 600 4
La ira de Odin 2	Solano 90 8
El regreso 1	Zuloak 3
Kriskibalda 1	Los Heredia 4
Okendo Kirolak 1	Gimnasio Saioa 0
Resacas 4	Aizpun bila 5

### C taldea

Fosforos4	Artano 5
Kannabis boys 0	Diego Antonio 1
Zelai 2	Sannan Hussein 5
Danok Lagun 15	Steaua del grifo 2
Pepelus 2	Alperrak 7
Los motz 2	Bar Kajoi 7
Bacilona 4	M.G.M. 7
Neptuno 0	Muru Barren 1

### D taldea

Sisepuede 11	B.B.V. 1
Camerun's 5	Avinagraos 2
Inter de alimañas 4	Potroak 7
Artzanko's 2	Argi ibili 11
Gau azkenak 2	La Banda de Pepe 10
Sukumurus- Aterpe 5	Gastaos 5
Balalaika 2	Adelaida 5
Rayo Vatika-no 3	Babarias 2



EGUNEROKO  
MENUA  
ETA KARTA

Olarte kantoia 3,  
Tfnoa: 79 84 53  
ARRASATE

**ASTERO  
WALKMAN  
BATEN  
ZOKKETA**

# KAJOI

# TABERNA

Erdiko kale 22, ARRASATE

4629

Moztu iragarki hau eta eraman TRIKITI dendara

IZEN DEITURAK ..... TFNOA: .....

# Txutak

## AZKEN AUKERAK

**H**orrela da, bai. Datorren astean Zaldibarko futbito txapelketaren lehen faseari bukaera emango zaio, eta oraindik gauzak erabakitzear daude C eta D taldeetan. C taldean *Alperrak*, *Pepelus*, *Fosforos* eta *Diego Antonio* taldeak sailkatuak, eta bigarren faserako aukera ematen duten bi postuetarako, hiru taldeen lehia izango da asteburu honetan: *Artano*, *Zelai*, eta *Bar Kajoi* taldeena. Hiru horietatik,

*Artano* taldea ia seguraski sailkatuko da, beste bi taldeen artean gauzak gori-gorian izango direlarik.

C taldean gauzak estu badaude, D taldean askoz ere estuago, bi talde baka-rrik daude sailkatuta eta: *Lorategi-Potroak* eta *Argi Ibili*. Beste lau taldeak, hauetatik aterako dira: *Adelaida*, *Rayo Vatika-no*, *Camerun's*, *Sisepuede*, *La Banda de Pepe*, *Artzankos*, eta *Balalike*. Eta gauzak gehiago estutzeko, hone-lako norgehiagokak: *Camerun's-Sisepuede*, *Artzankos-Lorategi Potroak*, eta *Adelaida-Rayo Vatikano*. Argi dagoenez, beroa izango da partidu horietako giroa.

*Beñardo Kortabarría*

## DATORREN ASTEBURUAN

### C taldea

Kannabis boys .....	Fosforos
Zelai .....	Diego Antonio
Danok Lagun .....	Sanann Hussein
Pepelus .....	Steaua del grifo
Los motz .....	Alperrak
Bacilona .....	Bar Kajoi
Neptuno .....	M.G.M.
Artano .....	Muru barren

### D taldea

Camerun's .....	Sisepuede
Inter de alimafias .....	Avinagraos
Artzanko's .....	Lorategi-Potroak
Gau azkenak .....	Argi ibili
Sukumurus-Aterpe .....	La banda de Pepe
Balalike .....	Gastaos
Rayo Vatika-no .....	Adelaida
B.B.V. ....	Babarias

## OHARRA

A eta B taldeetako ekipoek lehen faseari amaiera eman badiote ere, ezin da aurreratu gero jokatu-ko dituzten partiduak, beste bi taldeetan zeintzuk sailkatzen diren jakin arte. Esan, hurrengo fasea 24 ekipok jokatu-ko dutela, 3 taldetan banaturik.

# BASTIDA

- Mekanografia
- Takigrafia
- Informatika
- Kontabilitatea
- Klase partikularrak

Ferrerias 44, etxebehea, Tfnoak: 79 32 16 / 79 77 13  
ARRASATE




## OPTIKA - OFTALMIKA

ERABILI ETA BOTATZEKO LENTILAK.

ESKATU INFORMAZIOA

Kontzezino kalea 6, Tfnoa: 79 25 98




## SAN ANDRES AUTOAK

Araba Etorbidea 13,  
Tfnoak: 79 95 22 / 79 53 98  
ARRASATE



Alberto Errazti

## Kirola eta kultura uztartuz



**D**urangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azokan bere lehen liburua aurkeztu zuenean ezagutu genuen Alberto Errazti, Durangon bizi den mondragoetarra. Hamar urterekin joan zen Arrasatetik, baina bizi-bizi gordetzen ditu Ferixalekuko erreka, San Jose eskola, Santa Barbara eta Jose Luis Iñiarra parrokoaren oroimena. Deustuan Euskal Filologia ikasi zuen eta *Bizkaiko Bira* mendi-liburuaz plazaratu zaigu.

— Zer egiten du filologo batek mendi-liburu bat idazten?

— Filologo izateak ez du beste hobby batzuk izatea galerazten. Filologo hitza berak arranditsu samarra eman dezake, ez dakit, kasu honetan filologoa karreradun pertsona da, besterik ez. Nik egin nahi izan dudana hauxe izan da, normalean egin dudana gauza bat papereratzea. Paper horien bidez corpus bat sortu eta hortik liburua atera. Honekin kirola unibertsala dela esan nahi dizut, edozein ofiziotako pertsonak egin dezake kirola eta hortik abiatuta, kirola egiten duenak ez du zertan leloa izan.

— Nolako da zuk mendiarekin duzun harremana?

— Ni ez naiz edozein menditako tontorrera igo eta ezer begiratu barik jaisten den horietakoa. Irtenaldi bakoitzean zerbait berri aurkitzeak sortzen didan zirrara zor diot mendiari. Udaberrian edo udazkenean gauzak modu desberdinez ikusten dira.

Bestalde, mendiak gure iragana ezagutzeko aukera ere eskaintzen digu. Udalaizten kasuan bezala, haren magalean baseliza bat bada, horren berri jakin beharra dut, zeren azken batean gure historia hor dago, besteak beste, baserri eta landareen izenetan, etab.

— Zer egin gura izan duzu liburu honekin?

— Helburua kirola eta

betetzea?

— Lana nahiko zehatza dela uste dut. Liburu honek izan dezakeen meritua, hortik zehar barreiatuta zegoen hainbat material batzea izan da eta beste modu batez erakustea, eta batez ere euskaraz idaztea, zeren liburu hau lehenengo euskaraz idatzi dut eta gero gaztelaniara itzuli. Normalean alderantziz egiten da.

— Zehazki, zereskaintzen du liburuak?

— Beno, 21 etapatan Bizkaiari bira ematea litzateke. Etapa bakoitzeko mapa, ordutegi zehatzak, kultur mailako jakingarriak, toponimiari buruzko aipamenak, baselizen berri... eta bidean

— Bai, oso eroso. Akaso oztopoak terminologian izan ditut, zeren aurretiaz egin diren itzulpenetan aukera desberdinak egin dira hitzekin. Horregatik, liburuaren amaiera aldera hiztegitxo bat paratu dut, gauzak batu eta erraztu nahian.

— Nola antolatu dituzu liburu hau prestatzeko lanak? Fitxak erabiliz, irtenaldietako egunkariak...?

— Lan honek bi zati izan ditu. Lehenengo ibili. Etapa bakoitza behin baino gehiagotan egin dut, beti notak hartuz libretatxo batean. Baina datu horiek egiaztatu egin behar ziren, katastralak eta, erabiliz. Eta hortxe dago bigarren lana. Denetara bospasei liburutegitan ibili naiz datuak egiaztatzen.

— Denetara zenbat denbora eman duzu liburu hau idazten?

— Lehen urtean ibilbide guztiak egin nituen, datuak ere biltzen nituelarik. Denetara, esango nuke bi urte terdi eman dudala hau idazten.

— Zer asmo duzu orain?

— Bi hilabetetako atsedena hartu dut, liburutegi eta ordenadorearen murriztatik askatzeko. Bestetik, badarabilzkit buruan Arabari buruz horrelako beste liburu bat egiteko ideiak.

— **“Mendiak gure iragana ezagutzeko aukera ematen digu”**

kultura batzea izan da. Kultura zabaldu behar den ondasuna ikusten dut, herri xehean, ez akaso espezialisten mailan, baina bai gainera gutxienez hedatu behar dena, modu orokorrean besterik ez bada ere.

— Eta lortu duzu helburua

aurki daitekeen edozer gauzaz zerbait jakiteko aukera. Laburbilduz, Bizkaiko kostalde eta barnekaldea oinez ezagutzeko aukera ematen duela esan daiteke.

— Eroso aurkitu duzu zeure burua euskaraz idazten?

# Eskubaloiko entrenatzailea kanporatua

*Jesus Mari Herrerok hartuko du taldea beste bat aurkitu arte*

Orain arte Arrasateko eskubaloiko taldea zuzentzen zuen Javier Jimenez Eleta, hemendik aurrera ez da taldearen entrenatzailea izango, zuzendaritzak bere kargutik kanpo utzi zuen eta joan zen astelehenean. Momentuz, berria aurkitu arte, aurreko denboraldian taldearen entrenatzaile izan zen Jesus Mari Herrerok beteko du eskubaloiko taldearen entrenatzaile postua.

Taldeko zuzendaritzatik ziotenez, Javier Jimenez karguz kanpo uzteko arrazoi nagusia taldea eskaintzen ari zen joku kaskarra litzateke, ondorioz, atera diren emaitzak ere oso txarrak izan direlarik.



Javier Jimenezek ez du berriro Arrasateko esku baloi taldea zuzenduko

begiratu bait du entrenatzailearen lana. Ez da astebete, orrialde honetan bertan, eskubaloiko taldean edozein aldaketa egon zitekeela esatea gehiegiztat jotzen ez zela. Denborak arrazoi eman du, eta larunbatean Bilbon partidua galtzeak ez du sorpresarik ekarri, erabakia aurrez hartuta bait zegoen. Nahiz eta kargutik kanpo utzi, zuzendaritzakoek Javier Jimenez entrenatzaile ona zela esan zuten, baina partiduetan urduritasunaren ondorioz, gauza arraroak egiten zituela.

## Taldea berpiztu

Orain lan handia daukana Jesus Mari Herrero da. Ez da erraza izango eta morala lur azpian duen taldea behintzat azalera ziteke, galdutako konfidantza berreskurarazi, edo jokua norabidea finkatzea. Konfidantza handia dago momentuz taldea zuzenduko duen Jesus Mari Herrerongan. Zentzu honetan, gogoratu behar da lehen Herrerok entrenatzen zuela taldea, eta orduan lortu zirela eskubaloiko taldearen garaipenik hoberenak. Ea bada, entrenatzaile aldaketarekin eskubaloiko taldeko mutilak burua altxatzeko gai diren eta kategoria galtzeko arriskuari ihes egiten dioten.

## Adierazpenak

Bestalde, iturri berak zioenez, talde giroa ere ez

omen zen bat ere ona azkenaldian, lortutako emaitza txarrei Javier Jimenez entre-

natzaileak duela denbora gutxi prentsari egindako adierazpenak gaineratu zaizkierarik. Adierazpen haietan, karguz kanpo utzi duten entrenatzaileak, Arrasaten sistema zaharkituekin lan egiten zela zioen eta berak lana egiteko zuen era ez zela ulertzen.

Javier Jimenez, zuen kargutik kanpo uzteko adierazpen horiek arrazoi funtseskoenak ez badira izan, eragina izan dute erabakia hartzeko orduan, Arrasate Esku Baloi taldeko zuzendaritzak ordutik beste modu batera



Oso gutxitan jaurtitzen omen dute mondrogoetarrek



**HAURTOKO**

Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90 ARRASATE




**FANCY**

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24

## JUAN CRUZ ZABALOA

### Mendian txirrinduan

# PODIUMA



**J**uan Cruz Zabaloak 36 urte dauzka eta esan daiteke gaztetatik kirol munduan sartuta dagoela, beti ere bi gurpilen kirolari lotuta, txirrindularitzari hain zuzen. "15 urte nituela txirrindularitzan hasi nintzen. Gazte mailan pare bat urte egin nituen, eta gero afizionatuetan ibili nintzen. Ez nintzen oso ona eta utzi behar izan nuen. Dena dela, konpetizioa alde batera lagata ere, txirrindularitzari jarraitu diot".

Txirrinduarekiko zaletasunagatik edo batek daki zergatik, kirolarekin zer ikusia duen lanbidean ari da Juan Cruz Zabaloa, masailaria da eta. "Bartzelonan ikasi nuen eta gustoko lanbidea dut. Duela urte batzuk jende ugari izaten nuen eskuartean, baina orain jaitsita dago hori ere, baliteke konpetentziagatik izatea edo hasierako hura moda izan zelako". Kirolari eta era berean masailari ikuspegiatik, konpetizio-kirola ez du zeharo ondo ikusten, bera garai baten horetan ibili bazen ere. "Konpetizioa ez da bai ere ona osasunerako, giharreak, eta orokorki gorputza, gehiegi behar izen da, gero ordaindu behar izaten delarik. Kirola egitea ona eta osasuntsua da, baina beti ere neurrian eta lasaitasunez hartuta, denborapasa bezala".

Idea horiekin bat eginez, hau da osasunarentzat ekar dezakeen arriskua baztertuz, Juan Cruz Zabaloak errepideak utzi ditu eta mendiko bizikleta aukeratu du. "Gaur egun ezin daiteke errepideetara atera, oso arriskutsua da. Duela urte batzuk lasai ibiltzen ginen, baina orain errepideari beldurra hartu diot, auto gehiegi ibiltzen delako. Errepidean beti zaude tentsioan, alde guztietara begira. Mendiko txirrindua zeharo ezberdina da, lasaitasunez hartuz gero, oso ondo pasatzen duzu eta gainera paisaia izugarriak ikusteko aukera izaten da. Gainera, mendian arriskurik egon edo ez norberaren esku dago. Maldan behera bizkor bazoaz erortzeko aukera gehiago izango duzu, hortaz badakizu polikiago joan behar duzula".

Adiskidetasuna ere desberdina omen da. "Gailurrera iristean, denok biltzen gara eta beti dago tragoskada edo komentarioren bat egin beharra, lagun giro polita da".

#### ◆ Pilotan berriro

Gabonetako etenaren ondoren, larunbat honetan Gipuzkoako klubaren arteko txapelketari ekin beharko diote pilotari arrasatearrek. Larunbatean, goizeko hamar t'erdietatik aurrera, pilotari arrasatearrek Azkoitiko taldea izango dute aurrean, klubaren sailkapenean lehen postuan doana hain zuzen. Lau partiduko jokatu dira larunbatean, prejuvenil, juvenil, gazte, eta zaletuen maila dagozkienak.

Pilota utzi gabe, aipagarria da igandean pala partiduko bi jokatu direla, hamar t'erdietan ere, Zumaiako taldeko pilotarien aurka.

#### ◆ Besaideko batzarra

Besaide Mendizale Elkarteak dei egin nahi die bazkide guztiei, datorren asteartean, arratsaldeko 7.30etatik aurrera, elkartearen aretoan burutuko den batzar orokorrera ager daitezten. Batzarrean, elkartearen iazko balantze ekonomikoa eta iaz egin ziren ekintzen berri emateaz gain, aurrera begira elkarteak zer pausu eman behar dituen erabakiko da. Horretaz aparte, presidente berriaren hautaketa egingo da. Honegatik ahalik eta jende gehien agertzaren beharra.



- ❄ **Candanchu:** Elur hautsa. Pista guztiak zabalik.
- ❄ **Astún:** Elur hautsa. Pista guztiak zabalik.
- ❄ **Valdezcaray:** Elur hautsa. Pisten %70a zabalik.

## egizabal

Bidekurutzeta 13,  
BERGARA


## Elisabete

# Forma fisiko onean gaude? (V)

**I**kasketa asko dira ariketa fisikoa gaitz koronario-en agertzearekiko prebentzio baliagarria dela erakusten dutenak. Hauetako azkena Estatu Batuetako Dallasen egina da, 13.344 aztertuak izan zirelarik eta horretarako 8 urtetan zehar jarraituak izan ziren.

Ikasketaren hasieran test bat egin zieten nolabait forma fisikoaren arabera klasifikazioa lortzeko: forma fisiko txarrekoak, forma fisiko ertainekoak eta forma fisiko ona zutenak.

Zortzi urte igaro ondoren, parte hartzaileen artean 283 hil egin ziren hasieran osasun onekoa izan baziren ere.



Heriotz hauek forma fisikoarekin erlazionatu ziren eta zerikusia handia zegoela agertu zen: heriotz hauen portzentaia askoz handiagoa bait zen geldikorren artean, hau da forma fisiko eskasa zutenen taldean.

Animaliekin ere egin dira horrelako esperimenduak: egunero ariketa fisikoarekin entrenaturiko txakurrek,


adibidez, erresistentzia handiagoa erakusten dute bat bateko heriotzaren aurrean, arrisku koronarioa horrela gutxitzen delako.

Gaur egun, jakinaren gainean gaude, ordea, ariketa fisiko gogor batek eraso kardiako fatala ekar dezakeela entrenatu nahiz entrenatu gabekoen artean, azkeneko hauek erraztasun handiagoa

badute ere. Ondo entrenatua dagoenari arriskua %40 gutxitzen zaio bat bateko heriotza suertatzeko ariketa fisikoa egiten ari denean nahiz atsedendian. Bat bateko eta uztegabeko heriotza gertatzeko arriskua ariketa fisiko gogorretan handitzen bada ere, aktibitate fisiko gutxi egiteko ohitura dutenen artean areagotzen da.

Horregatik dira hain arriskutsuak aste buruko deportegileak, aste osoan zehar ezer egin gabe igaro ondoren, igandean garrantzizko esfortzua egiten denean. Horrela hauen artean gertatzen dira maiz eraso kardiako fatalak.

Arantza eta Eukeni



## HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentruak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE  
Tfnok: 79 67 80 / 79 05 61  
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Goiaín Industrial Poligonoa. 24 Apartatua  
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53  
Telefax: 45 54 74, 01170 LEGUTIO

# Hitzaldia

## Zorigaiztoko Golko Pertsikoa: zergatik borroka?

- **Hizlaria: Baleren Bakaikoa**  
(EUEko irakaslea)
- **Eguna: Urtarrilak 29, asteartea**
- **Ordua: 7.00etan Monterronen**

### Ondoren debatea:

- **Gerraren zergatiak**
- **Ondorioak**



# Hitzaldia

- **Gaia: DIBORTZIOA**  
Araudia eta praktikan ematen diren arazoak
- **Emalea: NEKANE SAN MIGEL (Abokatua)**
- **Egunak: urtarrilak 24, 31 (ostegunak)**
- **Ordua: arratsaldeko 3etan**
- **Non: AEDn**

**Antolatzailea: AEDko Emakume Taldea**



# Alfabetizazioaren nazioarteko urtea dela eta... (V)

## Arrasateko Udal Euskaltegia (1. atala)

**E**uskaltegiak alfabetizazioaren inguruan garatzen duen lana hobeto ulertzeko hainbat kontsiderazio:

• Bat dator euskaltegia Klarion taldeak eskaintzen duen alfabetizazioaren mailaketarekin. Gure ustez ez da nahikoa, halere, alfabetizazio-mailak gaitasunarekin soilik lotzea. Alfabetizazio mailak erabilerari lotzea errealagoa iruditzen zaigu. Alfabetatu letratuaren gaitasuna izan eta erabiltzen ez duena analfabeto funtzional bilaka daiteke. Bestalde, erabilerari dagokionez, haren dimentsio ezberdinak hartu behar dira kontuan, erabilerari pertsonaletik erabilerari sozial zabalenerainokoak.



(Erabilerari pertsonalak ez du garabiderik kontestu sozialean txertatzen ez bada).

• Alfabetizazioaz dihardugula, komeniko da bereizketa terminologiko bat egitea. Euskaltegien inguruan azken urte hauetan alfabetizazioaren kontzeptua sortu eta garatu da. Alfabetizazioa, beraz, jatorriz eus-

kaldun direnen irakurtzen eta idazten trebatze-lanari deitzen diogu. Alfabetizazioa eta alfabetizazioa gauza bera al dira? Zilegi begigu biak bereiztea. Alfabetizazioa arestian aipatutako euskaldun zaharrei dagokie eta alfabetizazioa, aldiz, pertsona orori dagokio. Alfabetizazioa zein euskalduntzen ari

dena alfabetizatzen aridaiteke.

• Alfabetizazioak bigarren hizkuntza baten alfabetizazioa edo ikaste-prozesuetan dituen berezitasunak aipatu behar derrigorrez. Alfabetizazioa hein handi batean kontzeptu interlinguistikoa da. Bestela esanda, hizkuntza berri bakoitzaren eskuratzeko ez da alfabetizazio-maila berria eskuratu behar, baizik eta soilik hizkuntza, tresna. Alfabetizazio-maila, beraz, elementu transferigarria da, hizkuntza batek bestera eraman daitekeena. Nahiz eta hainbat elementu sozio-kultural hizkuntza berriaren eskuratzeari loturik agertu.

(Arrasateko Udal Euskaltegiak Klarion taldearentzat Idatzita)

**Monte  
taberna**

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

**IBARRA Garajea S.A.**



**EBRO  
NISSAN**

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua

**ZENBAKI**




**Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak**

Basabe industrialdea  
ARETXABAETA  
Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99

**BAKAILO ETXEA**

Makailoa eta beroni buruzko produktuak  
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu  
Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**



**J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64**

**MIREN**

**APAINDEGIA**

Zarugalde 23, 2. Ezk.  
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE

Todor Calvo,  
AEKko irakaslea

**T**odor Calvoren R-4ak, dozena bat urte inguru dauzka. Berak bigarren eskutik erosi zuen, baina hala ere ona atera zaio. *"Aberia handirik ez dut eduki. Beno, behin direkzioa hautsi zitzaion, bainan abiaduraren eraginez. Auto zintzoa da"*. Izan ere, Todorrek dioenez, abiada handian gidatzen omen du, eta ez duela gehiegi zaintzen. *"Me-rezi duen bezala ez, eta garbitu?, bada euria egiten duenean"*. Musika ere gustatzen zaio, eta horregatik bidaia luzee-tan zintak entzuten gidatzeko ohitura dauka.


## Todor Calvo



*Salterain*

**Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...**

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.  
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

# Gorbeako maldak

**U**rteberri on esan beharrik ez dugu izan. Mendiak edurraz estali jakuz eta bizikletan ibili gura izan duenak, baserri inguruan eta herri inguruan ibili behar. Bazterrak ondo lokaztu dira eta birritan izan naiz edurretan, fondoko eskietan, eta mendi-bizikleta ganean edur artean, edur gogor eta bigunaren arteko zeharbideetan.

Ahaztu ditzagun protagonista ausart horien abenturak eta aspalditik buruan nuen asmo baten berri emango dizuet. Gogoratzen dut bai, behinola, hemen bertan, artikulua honetan, Gorbeara joateko promesa-

ren berri bota genuela. Azaroan, azkenien, animatu eta domeka goizeko 8etan Muruara (Gopegi) abiatu ginen. Bizikletak eta motxila txikiak hartu eta urten orduko, 9.30ak edo izango ziren. Eguraldi freskoa baina aterri egiten zuenez, gora egiteko moduan zegoen. Egun horretan Gorbeak txapel zabala zuen; goia lainoturik zegoen.

“Puntaren puntara” iritsi eta txamarrak aldatu, eskularruak jarri, bero-berotan eta hamarretako ederra hartu genuen. Horrelakoetan larranjak, sagarrak, intxaurrak, etab. eroaten ditugu.

Aurrekoan botatako promesa laster beteko genuen. Aurrekoan legez, oraingoan



Muruia aldetik igon genuen, baina oraingoan bide beretik itzuli beharrean, Bizkaia aldetik joateko asmoa genuen. Egundoko aldatza dago. Beharrentza joan behar eta balaztak ondo sakatu behar dira. Sakatu arren, bizikleta zuzen, aurrera joaten jakun; batera eta bestera, aldenik alden, joaten jakun.

Azkenean, aldaparik handiena zeharkatu ondoren, bidetik behera egin genuen beheko txaboletaraino. Goiz hartan ihintza egin zuen eta askotan, mendialderantza, laban egiten zuten bizikletek.

Txaboletatik igaro eta eguerdiko ordubaterako Gorbeako urtegian geunden. Erreka ondoan lokatza garbitu eta bide zaharretik Muruaraino zuzendu ginen. Astirik ere izan genuen Ubidean botila bat sagardo edateko. Orain zeuri edo bizikletan dabilen bati egokitu jaku. Animau zaitetz; ikusiko duzu zelako sentsazio ederra sentituko duzun, horrelako aldapetan.

## Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

## Mondragonesa Grafikagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

## MUSAKOLA OSTATUA

**Taberna  
Jatetxea  
Bazkarialak  
Bodak  
Banketeak  
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g  
Tfnoa: 79 20 50

**AUTO  
ESKOLA**

# ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE





## Euskeraren Geroa, Geurea

Gure hizkuntzaren geroa sendotu behar dugu. Guraso eta belaunaldi gazteen arteko zubiak eraikiz kultura indartuz, urrats berriak emanez, gure nortasuna aldarrikatuz. Euskera geurea da, Euskal Herri osoarena, bere normalkuntza eta berreskurapena guztion ardura den bezalaxe. Horretantxe dihardugu.

**Euskadiko  
Kutxa**





Aste gazte

"Gaur egun, gazte politikan indarrik handiena hartzen ari den jokabidea gazteentzako informazioa litzateke; dena den, informazio politika hori aitzakia, partxe edo porrota bilaka daiteke. Egia da, eta gazteentzako informazioaren alde gehientsuenok egon arren, gazte gehienak ez direla jabetzen dituzten aukeretaz".

Jesus Marti

"Europa ezagutu"

• Lanbide Heziketa ikasketak burutzen ari direnei zuzendutako bidaia merke bi: Paris 4.500 pta., Lisboa 3.000 (joan-etorriko bidaia bakarrik).

Lanpostu deialdiak

• Gipuzkoako Foru Aldundiak aldibaterako bete behar diren honako lanpostu hauek betetzeko deialdia egin du:

-50 administrari laguntzaile.

Baldintzak: gutxienez 18 urte izatea, OHO, LH1 edo baliakideren bat, Gipuzkoa barruan lekuz aldatzeko prest egotea, prestakuntzako ikastaroa gainditzea.

-20 arduradun, udal errolda ikuskatzeko.

Baldintzak: gutxienez 18 urte izatea, OHO, LH1 edo baliakideren bat, gidatzeko karneta.

Epea: 91-01-31.

Lehiaketak

• Basauriko III. Komiki Lehiaketa, banan-banan zein taldeka parte hartu nahi duten guztiei zuzendua. Zuri-beltzez, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Sariak: 1.)100.000, 2.)60.000, 3.)euskaraz egindako onenari 60.000, 4.)18 urte baino gutxiagoko onenari 30.000, 5.) "inolako lotsarik gabe" egindakoari (zaharra, lizuna...) 30.000. Lanak aurkezteko epea: otsailaren 28ra arte.

• Laudioko I. Ipuin-Lehiaketa. 2 modalitate: euska-

raz eta gazteleraz, 2 maila: a) haurrak (sariak: 30.000, 20.000, 10.000 pta. eta plakak) eta b) gazteak (Sariak: 50.000, 30.000, 20.000 pta. eta plakak). Lanak aurkezteko epea: 91-03-15.

\*"Hermanos Argersola" Poesia-Lehiaketa. Gazteleraz, gai libre. Sari bakarra: 50.000 pta. Lanak aurkezteko epea: 91-03-15.

\*"Ciencia-ficción" Salvat Literatur Saria. Gaia: fantasia eta fikzioa. 2 sari: 1.000.000 eta 250.000 pta.

• "Ciudad de Barbastro" Nobela-Lehiaketa. Gazteleraz, 100 eta 150 orrialde bitartekoak. Sariak: 750.000 pta. Lanak aurkezteko epea: 91-03-15.

Elkartrukeak: Gazteria Europarekin

• "Gazteria Europarekin" 15 eta 25 urte bitarteko gazte-taldeei zuzendutako programa dugu, zeinen bidez dirulaguntzak lor daitezkeen, Europako Ekonomi Elkarteko beste gazte-taldeekin elkartrukeak

antolatzen. Uda honetan burutzeko proiektuak aurkezteko epea otsailaren lehen aurretik da.

Bekak

• "Serafin Ferruzzi Enpresa edo Politika Zientzietan lizentziaturiko 27 urtetik beherako gazteei zuzendua. Iraupena: 12 hilabete. Dirulaguntza; urteko 12.000 ECU. Epea: 91-01-31.

• Florenciako Europar Institutu Unibertsitarioan ikasleak burutzeko "Salvador de Madariaga" programaren beka. Europari dagokionez, interesgarri gerta daitezkeen gaien buruzko ikasketak eta ikerketa proiektuak egiteko. Dirulaguntza: 125.000 pta. Epea: 91-01-31.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua, 77 00 65

**"PAL"**  
burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria  
Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**FERRERIAS**  
Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta  
Ferrerias 23,  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M ARENAZA**  
Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07 ARETXABAETA

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU  
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....  
HELBIDEA.....  
HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15


**77 08 15**



# Zer nahiago?

## Rafa Godoi

### Rotonda tabernakoa



- **Kafeko jendea ala txikiteokoa?** Kafekoa noski, diru gehiago uzten du eta.
- **Pintxoak, beroak ala hotzak?** Beroak nahiago ditut.
- **Tabernan egotea ala tabako banaketa egitea?** Banaketa egitea, 11 urte daramat barran eta ez zait bat ere gustatzen.
- **Goizean, salda ala kafea?** Kafea.
- **Tabako beltza ala rubioa?** Lehen rubioa erretzen nuen, baina orain ez dut erretzen.
- **Siesta egin ala berandu jaiki?** Berandu jaiki nahiago dut.
- **Zinea ala telebista?** Zinea, ikusi eta entzun hobeto egiten da.
- **Kirola, egin ala ikusi?** Ez egin eta ez ikusi, kirola ez zait gustatzen, nagia naiz.
- **Kartak ala futbolina?** Bat ere ez.
- **Ama ala emaztea?** Ama haserretu egingo da, baina emaztea.
- **Kalejira ala etxean gelditzea?** Biak, egoeraren arabera.
- **Postrerako, fruta ala pastelak?** Pastelak, dudarik gabe.
- **Korbata ala pajarita?** Gauza horiek ez ditut gustoko.
- **Hotza ala sargoria?** Sargoria, hobeto jasaten dut.
- **Zapatak ala zapatilak?** Zapatak.
- **Oinez ala autoz?** Autoz, lehen ere esan dizut nagia naizela.
- **Oporretara, mendialdera ala kostaldera?** Berdin dit.
- **Lotoa ala kinielak?** Ez ditut egiten, oso noiz behinka loteria erosi eta kitto.
- **Tabernan, telebista ala musika?** Musikarekin gustorago egoten naiz.
- **Vermouth-a, ginebraz ala barik?** Inola ere ez, niri gustatzen zaidana ardoa da.
- **Zuzenean galdetu ala beste nolabait jakin?** Zuzenean galdetu nahiago.
- **Mondragoe ala Arrasate?** Arrasate.
- **Irak ala EEBBak?** Putaseme hutsak dira guztiak.

# Igarkizunak

## Letrak eta zenbakiak

1. Amak bi ditu  
aitak ere bai,  
semeak bat ere ez  
eta alabak hiru.  
Zer da?

2 Hiru ahateko gara  
uretan igerian,  
bakoitza bi  
eta batuketaz sei.

3. Irteten zure ahotik  
izan nintzen lehena,  
beste guztien aurretik  
zerrendan nago aurrena.

4. Zakurrak aldean darama  
upeltxo barruan dago  
nik ez dut sekula izan  
eta zuk beti hor.

5. Behin nago irudimenean  
beste behin oroimenean  
zeruan bigarrena naiz  
eta hirugarrena infernuan.


6. Zer ote da, zer?  
Uda hasieran dago,  
negu bukaeran ere bai.

7. Ilargian bat dago  
eguzkian bat ere ez,  
izarretan ere badago.  
Badakizu ala ez?

8. Zuzen-zuzena  
du makilatxo,  
eta buruan dauka  
hizki honek eltxoa.

1.=A, 2.=222, 3.=A, 4.=U, 5.=E, 6.=  
U, 7.=A, 8.=1

**Felipe**  
**Arrizabalaga**  
**aroztegia**



Legarre pabilola Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

**PAZI-OLA SA**


Zaldizpe kalea 2,  
Tfnoa 79 29 91  
**ARRASATE**

**A**

ste honetan orain arte inon agertu ez den dokumentua dakargu orri honetara. 1934eko urriaren iraultza zela eta, On Joxe Markiegi Mondra-

goeko abade debatarrak eskutitz hau idatzi zion Gaizka Barandiaran jesuita arrasatearrari, egun haietan bizi izandakoak kontatuz. Eskutitza 1934eko urriaren hamaikan idatzi zuen eta guk bere hartan ematea erabaki dugu:

“Zure erri maite onen izena eldu zaitzu agian belarrietara egunotan, eta ez gozoki. Zer izan da au! Amalau urte baiño luzeagoko amalau ordu ziran joan dan ostiralean ordu larri aiek! Goizeko bosteterdietan emengo zutunpa ta bonba-otsa!...Zer gertatzen ote zan, banõa elizara, ta enparantzako ituriondotik: alto! ta besterik gabe jaurti zak tiroa. Azkar artu bear izan nuan elizako atea. Lenengo ostirala izan arren, utsik zegoan eliza, ara bidean zetoztenak artu ta Casa del Pueblo´ra eramaten bait-zituzten. Ixildu ez ziran goiz osoan tiro ta tiro. Guardiazivil´en Cuartelera batez ere; baiño auek gogor egin al izan zuten (goriak ikusita bederen) lameko (sic) egiteko. Naiko egin zuten gizajoak artan irauten... Ez zegoen etxetik ateratzetik, ezta leioetara ere. Erriko denda, argi, indar, urutizkin...guzien jabe goriak genitun, zer ikusi bear ote genuan? Ontan, bazkalonodan gudariak Gasteiz´tik. Orduantxe amasa puxka bat. Baiño emen datozkit etxera (\*) Casa del Pueblo ostean Orexa ta Errezusta jaunak ilda daudela ta joateko lenbailen. Orexa jauna bizirik zegoan artean: baiño bereala il zan. Alako gizona il geiagoko gabe! Dn. Dagoberto beriz ilda (GB). Biotz gogor´eko sozialistok tiroz zulatuta utzi zituzten biak. Gudariak



ordea Eibar´era zijoazen, ta emen utzi ginduzten atzera gorion mendean. Gau beltza ikusten laifnean, zertzuk egingo ote zituzten aiek zituzten bonba ta petardo ta gasolina ta batez ere biotz gogor´akin? Oratik 7´ak inguruan Jaungoikoak bialduta sortu(sartu) ziran gudaritaldeak eta ia korneta jo ta beste gabe menderatu zuten erria. Orain, auen kornetotsa-

ren aginduetara bizi gera poz askorik. Eun ta geiago gorri detenitu ditue Udalatzaldean eta abar, ta Iruña´ra eramane. Buruetakoak ordea azke dira oraindik. Olaetan garbikizun edefik egin bear dutela deritzat oraingoan”.

(\*) Oharra- Esan zidatenez, Markiegi ezik, ez zala apaizetatik beste inor, Orexari eta laguntzera joaten ausartu.



**ETXEPARE - BILINTX**

**LIBURUBENDAK**

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

# UMEZAINTZA HAUR-ESKOLA



**VICTOR RUIZ MELGAR**

Pintorea

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)

ARRASATE

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

## Eguneko ordu guztiak ditut nik igaro

**E**guneko ordu guztiak ditut nik igaro.  
Egungentziarekin batera telefonoz hotsegitea zer den badakit nik.  
Birikak, belarri, arnasa. *Sensatio.*

Eguneko ordu guztiak ditut nik igaro eta  
ilunpetan irakurtzea ere badakit nik zer den.  
Iputargiak, lepomina, koloreak. *Sensatio.*

Bisutzaz atxintxika egiten irtetzea badakit nik zer den  
eta basamortu amaigabeak amestuta itzartzea.  
Ura, putza, izerdia. Hotza. *Sensatio.*

Atzo bizkarra masaiatu egin nion.  
Adatsa, begiak, ezetza. *Sensatio.*

Eguneko hogeitabost orduak igaroak ditut  
eta, poetak zioen bezala, gau ta arratsalde  
sartua izan naiz asundegietan barna larrua jotzeko asmoz.  
Biluzik, asunak, larrua, bakarriak. *Sensatio.*

O bai, nereak dira eguneko ordu guztiak, nereak;  
nereak eta agian zeuenak ere bai, ez dakit hori.  
Ikusi eta entzun egiten ditut, hozkatu, labandu maiz.  
Enfin, zertarako jarraitu.

Nire oroimena ez da oraindik ahazten hasteko bezain zabal baina  
eguneko ordu guztiak ditut nik igaro  
eta ez naiz inoiz ere ase.  
Gauak, egunak, zulo txo bat hemen. *Sensatio.*

*Jon Ayastui*




**ASEGURO  
ARTEKARIA**  
Zure esanetara gauzkazu!

Maalako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE

## 28 ASTELEHENA

18.30 **Teletestua.** Era guztietako iragar-ki eta oharrak ematen dira: autobusak, beharrezko telefonoak, ATBren programazioa, iragarkiak... denetik.

19.30 **Bapirulauke**, umeen saiorik begikoena, aste honetan S. Frantzisko Xabier ikastolako 3.mailako umeekin egina.



20.00 **Berriak**, asteburuan Arrasaten gertatutako informazio guztiaren berri, Koldo Rodriguezen eskutik.

20.20 **Mondrasport**, ATBren Kirol-Saioa, Beñardo Kortabariak zuzenduta.

20.35 **Saltsa-maltsan**, Jaione Oñabe sukaldari aretxabaletarrak euskal pastela noia prestatzen den erakutsiko du.

## 31 OSTEGUNA

11.00 **Teletestua.**

12.00 **Berriak** (bezperakoa).

12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa).

## 29 ASTEARTEA

11.00 **Teletestua.**

12.00 **Bapirulauke** (bezperakoa).

12.30 **Berriak** (bezperakoa).

12.55 **Mondrasport** (bezperakoa).



13.10 **Saltsa-maltsan** (bezperakoa).


13.20 **Bapirulauke** (bezperakoa).

## 1 OSTIRALA

19.00 **Teletestua.**

20.00 **Berriak**, ATBren albistegia, Begonia Garaik aurkeztua.

20.20 **Erretratoa**, J.R. Elortzak mondagoetar ezagunei egiten dien elkarrizketa. Aste honetako gonbidatua:



Jose Andres Arregi Xandro, Gaurko enpresaren zuzendaria. Iaz Santiago Bidea egin zuen beste hiru arrasatearrekin. Zezenzalea eta ezaguna oso.

20:50 **Musikantoi**, Asier, Mikel, Pepe eta Patxiren Saioa.


**Berriak** (errepikaldia).

## 30 ASTEAZKENA

19.00 **Teletestua.**

20.00 **Berriak**, Mondragoeko aktualitatea, Koldo Rodriguezek aurkeztua.

20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**, mahaingurua, Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzenduta. Gaia: Santa Agedako Koruak. Gonbidatuak: Sant: Agedako korua.



**Berriak** (errepikaldia).


## 2 LARUNBATA

11.00 **Teletestua.**

12.00 **Berriak** (bezperakoa).

12.20 **Erretratoa** (bezperakoa).

12.50 **Musikantoi** (bezperakoa).



### ESTETIKA ZENTRUA

lurrundegia, opariak, jostailuak

# Z a r r a o a

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

## MIKEL

**Eskaiola, pintura eta kortxozko apainketa**

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75  
ARRASATE





## Telebegi

Biorrialde hauetan ikusten dituzun aidaketek, irakurle, helburu garbia dute, ATBri buruzko informazioa hobetu eta zabaltea. Aurrerantzean programazioak ezkerreko orri osoa hartuko du eta lehen betetzen zuen lekua eritzizko zutabe honek ordezkatu du. Ez naiz hemen idazten duen bakarra izango, ordea. Aste-oro, ATBn zeregin desberdinetan gabiltzan lau lagun txandatu gara eta hemengo esperientzietatik abiatutako hausnarketak isuriko ditugu.

Munduko edozein tokitan pizten den gerra telebistaz zuzenean jarrai daitekeela garbi ikusi dugu egun hauetan. Hala ere, herri telebistek zeresan eta egiteko asko dituzte oraindik, dagozkien eremuetan lana behar bezala egiteko.

Hori, berriz, ez da beti erraza izaten. Aste honetan, adibidez, Leitzarango autobideari buruzko mahaingurua antolatzeke ahaleginak eta bost egin ostean, ezin izan dugu nahi bezala egin, alderdien arteko hika-mikak direla eta. Gure herriaren egoera nolakoa den ikusiz gero, ez da bat ere harrizkekoa, baina bai ordea edozein erretzeko lain.

*Joxe Aranzabal*

**B**errikuntza handia ikusi zen joan den asteko *Musikantoi* programan. Izan ere, ohizko aurkezleen ordeztu, S. Frantzisko Xabier ikastolako 8. mailako gazte hauek hartu zuten beren esku saioaren ardura, gidoitik hasi eta aurkezpena barne. **Oier Artzamendi, Alexander Alkalde, Amaia Unzurrunzaga, Saioa Urrutia, Haritz Gorroño eta Ibai Zabaletak** oso programa polita burutu zuten. Beste horrenbeste egin nahi duzuen guztiok Musikantoi-ko ateak zabalik aurkituko dituzue. Animo!

**J**aso ziren telefono deiak zerbaiten seinale badira, joan den asteleheneko *Alkatearekin berbetan* saioak sekulako audientzia izan zuen. Asko izan ziren deitu zutenak eta ugari seguruenik deitu bai baina galdera egin barik gelditu zirenak, lineak konunikatzen ematen zuelako. Bat ezik, gainerako itaunak euskaraz egin ziren. Gaztelaniazkoa euskaratuta pasatu zitzaion Alkateari. Programak ordubete eta hiru ordu laurden iraun zuen.



## Telebelarri

◆ "Konbibentzia arazoek bultzatu gintuzten gaztetxea ixtera, ez han egiten ziren edo ez zirenek".

X. Zubizarretak Alkatearekin berbetan saioan.

◆ "Aparkalekuen arazoa konpontzeko soluzioa lurrazpiko garajeak izan behar direla uste dugu".

X. Zubizarretak Alkatearekin berbetan saioan.


◆ "Plazako dantzarekin ordua da problema. Jartzen dugunean jenderik ez dago eta ezin dugu beranduago jarri".

X. Zubizarretak Alkatearekin berbetan saioan.



**ARIES**  
Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Lanbide aldaketa dator kizu Aries, beraz ez pentsa daukazuna betiko duzunik eta hartuizu. Era berean, maitasunean ere aldaketa egon liteke, eta ez da edonolako maitalea izango zeureganatuko duzuna. Bejondeizula.



**LEO**  
Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Irudimenean zeneukan ideia hori egia bihurtu beharko duzu oraingoan Leo. Eguzkia, Neptuno eta Saturno elkarturik egoteak zure norfatsuna sendotuko du eta orain arte amets hutsak izan diren gaiak gauzatzeko ahalmena eskainiko.



**SAGITARIUS**  
Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Irudimena darizu alde guztietatik. Negozioren bati ekiteko momentu aproposa oraingoan, zeure ideiak ondo hartuko bait dira edonon. Baliteke zureganako ikusiezina duen norbaitek traizionatu nahi izatea, eziozu horretarako aukerarik eman.



**TAURUS**  
Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Aurrerabidea lortzea suerta liteke. Halere, baliteke aurrerabide hori eskaini dizunak ordainean zeozer eskatzea, izan ere zeu konturatu gabe nagusia maitemindu duzu. Argi ibili.



**VIRGO**  
Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Aspaldian atzeraturik zenezukan lanak berehalakoan bukatuko dituzu Virgo, geldotasuna alde batera lagako duzulako. Zorte ona izango duzu amodio kontuetan. Lan arloan, berriz, baliteke tirabiraren batjasan behar izatea lankideren batekin.



**CAPRICORN**  
Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Egoera ezin hobean aurkitzen zara Capricorn, planeta guztiak zure esparruan bait daude. Egoera honek emango dizun indarra eta kemena erabil itzazu inguruko onerako; ez zaitez zeurekoia izan, aurrerabidea zeure esku bait dago.



**GEMINI**  
Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Azkenaldian entzuna izan zara zure ideia argietatik, baina datozen egunetan Jupiter ez daukazu egoki posizionatuta eta berbak neuritik kanpo erabiliko dituzu; neur itzazu, baliteke batek baino gehiagok gezurtizat hartzea eta.



**LIBRA**  
Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Nortasun krisialdiren bat pasa behar izatea suerta liteke, Libra, amodio zaharren bat utzi behar izatearen ondorioz. Hutsik sentituko zara denboraldixoren batean baina lagun berriak egiten dituzunean, berpiztuko zara berriz ere.



**AQUARIUS**  
Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Mundu guztiari kontra egiteko izugarriko joera izango duzu eta gero ez duzu eztabaidari jarraitzeko argumenturik izango, zeure xedea kontra egitea baino ez delako izango. Domina zaitez.




**CANCER**  
Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra

Idea eta eritzi guztiak ondo aztertu beharrean zaude Cancer, beraz ez hartu erabakirik aurretik ondo pentsatu barik, hanka sartzeren bat egon liteke eta. Aitzitik, zorte ona izango duzu diru kontuetan eta baliteke ezusteko diru sarreraren bat izatea.



**SCORPIO**  
Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Burruka batean egongo zara zeure buruarekin, zeure gizalgearekiko kontraesanak suertatuko zaizkizulako. Norberen eritziak birplanteatzeak jakinduria sendotzen du. Amodio kontuei dagokienez ez zara fidela izango, tentazioetarik alde egin ezean.



**PISCIS**  
Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Ondo posizionatuta daukazu planeta guztiak, Piscis, beraz nonahi suertatuko zaizkizu benetako lagunak eta aspalditxo helburu baino ez ziren nahi horiek gauzatu egingo dituzu. Ospetsua den norbait zerbitzuren bat eskaini behar izatea suerta liteke.

**GOROSTI**  
Jatetxea

Arimazuri plaza Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE

## ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- \* Diagnostikoa - Orientazioa
- \* Estimulazio goiztiarra
- \* Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)
- \* Logopedia
- \* Laguntza terapia
- \* Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10

ARRASATE TFNOA: 79 48 77

LURRINDEGIA

**ERTZ**

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

**UGARTE**

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua

Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96


Telefax: 793412

# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia

# DENDARABA



## MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ